



ttipi-ttapa

Herrietako bestak



BESTA gehigarria / 25



LESAKAKO FABRIKAK 60 URTE

60. urteurrenaren harira, ekainaren 26an Ate Irekien Jardunaldia egingen dute Lesakako ArcelorMittal-en. / 10

UTZITAKO ARGAZKIA

Erdizko harrobia berriz tramitean

Proiektuaren memoria Nafarroako Gobernuan aurkeztuko duela jakinarazi dio Magna enpresak Baztango Udalari / 43

SINADURAK



ZOKKETA / 2



UTZITAKO ARGAZKIA

Saldiasko Olaia
Urrutia agronomia-
ingeniariarekin bere
ikerketa lanez / 8



AITZIBER ABASOLO

Suaren bueltan
ospakizunak egingen
dituzte eskualdean
San Juan bezperan



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikele Etxekolonea
eta Sarai Maritorea
duatloilariekin
solasean / 50

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

711

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Irrisarri Land - 2 sarrera**
Joseba Legarra Erasun | DONEZTEBE
- Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**
Miren Mariñelarena Olano | LEITZA
- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Begoña Bravo Larrea | IRUÑEA
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Gema Etxeberria Aleman | ERRATZU
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Juan Bautista Urroz Goñi | BEINTZA-LABAIEN
- La Rhune - 2 sarrera**
Josune Ballarena Urroz | ELIZONDO
- Wow Park - 2 sarrera**
Amaia Altxu Juanikorena | ITUREN
- Ttarttalo - Liburu bat**
Marian Azpiazu Olaskoaga | BERA
- Ttarttalo - Liburu bat**
Fermin Maritorea Azkarate | ANIZ

2 tiket

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA

2 sarrera WOW PARK
<http://wowpark.fr>

MUSIKA

Governors Z.E.R.O.
baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

LA GUNTZAI LEAK

txalaparta
www.txalaparta.eus

www.navarraaventura.com



NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Maitasun deklarazio bat

Altsasuko afera hasi zenean, lan egiten dudana Info7 irratiak erabaki zuen Altsasun saio berezi bat egitea. Espainiar hedabideek erraten zutenaren kontra, erakutsi nahi genuen Altsasu aski herri normala zela, eta gezurra zela zabaltzen ari zen gorroto hura. Hurbildu ziren gurera dendariak, kazetariak, udaletzeko kideak, musikariak... eta etorri ziren Adur eta Jokinen aitak ere

bai: «guk erraten diegu lasai egoteko, aterako ditugula eta maite ditugula», erran ziguten. Zer tristura. Zer errabia. Zer injustizia, Altsasuko gazteen zigorra publiko

egin denean. Zeinen atemporala, neurrigabea, mendekaria den. Niretzako hilabete hauetan Altsasuko gurasoak eredu izan dira. Txarrenari onena atera diote. Halabeharrez aditu bihurtu dira legegintzan. Oharkabean ikasi dute mikrofonoan solastaten. Zuek nahi bezainbertzetan aterako gara kalera. Besarkada bat Altsasuko herriari, batez ere, Altsasuko gurasoei. Guk ere maite zaituztegu.

**«ZER TRISTURA,
ZER ERRABIA,
ZIGORRA PUBLIKO
EGIN DENEAN»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

Umeen kontuak

– Nahi baduzu nirekin jostatu nire baloiarekin egin beharko duzu, dio Pepitok. –Pintxatuta dago, baina bale!, erantzun dio Aitorrek. –Pepito, gehiago gara eta zuk ez duzu patioan agintzen orain, guk jostatu nahi dugu, baina zure baloia erabiliz, erran du Pedrok. Aitorrek Pedrorekin segitu nahi du jostetan, eta Pepitok erran dio ez dela bere laguna izanen.

NABARMENTZEKOAK



SOKORRO
ALMANDOZ
GAZTAGILEA



JULEN
ZELAIETA
BERTSOLARIA

Sortzez arantzarra eta Beran bizi den Sokorro Almandozek irabazi zuen ekainaren 3an egin zen Etxalarko XXVI. Gasna lehiaketa. 120 euro eta trofeo hartu zituen sari gisa.

Julen Zelaieta beratarrak irabazi du Baztan-Bidasoaldeko 31. Bertsopaper lehiaketa, maila nagusian. *Seme, besarka nazazu* lanarekin lortu du lehenbiziko saria. Guztira 161 lan aurkeztu dituzte.

ATZERA BEGIRA



2008-06-26 · TTIPI-TTAPA · 473 zk.

Doneztebeko odol-emailei omenaldia

Ekainaren 14a Odol-Emaileen Eguna da eta horren harira, duela hamar urte erreportajea atera zuen TTIPI-TTAPA aldizkariak. Urte horretan, Adona Nafarroako Odol-Emaileen Elkarteak antolatutako besta Donezteben egin zen. Egundorretan, Doneztebeko ordezkariak hamalau lagunek omenaldia jaso zuten. Tartean zen, Juan Carlos Arregi Doneztebeko ordezkaria, eta odol-emaile egiteko deia luzatu zuen: «ez da deus ere kostatzen eta borondate pixka batekin aunitz lagun daiteke. Bertzei on egiteko aukera ederra da». Kontatu zuenez, 1991n zabaldu zuten Doneztebeko ordezkariak, eta hasiera hartan 60 bat hasi ziren. Geroztik, kopuruak nabarmen egin du goiti.



erran.
eus
Mendialdeko Albiesteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larralde, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabaló,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€



KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Antzerkiaren hazia

Harritik hazia antzezlanak bi urte bete ditu. Bertze izen batekin jaio zen 2016ko udaberrian, oroimen historikoaren gaia herri-antzerkiaren bidez lantzeko proposamena bertzerik ez zenean. Ordutik orain arte, gauza aunitz gertatu dira, eta jendearen aitzinean bortz aldiz eman da: hirutan, Berako Kultur Etxean, joan den urteko uztailean; behin, Atarrabian, aurtengo maiatzaren 25ean; eta hondarreko saioa Arantzán, ekainaren 2an. Zer eta nola egin den eta zer arrasto utzi duen pentsatzeko tenorea da.

Norbaitek zenbakiak idatziko ditu paperean: zenbat diru gusta den, zenbat jende etorri den ikustera, zenbat txartel saldu diren. Hori bertzerik egiten ez bada, bistan da, eskas geldituko gara. Nola neurtzen ahal da halako artelan batek ikusleen baitan duen eragina? Zer ikasi dugu lehendik ez genekiena? Zerbait pentsarazi digu gerra zaharrei edo gaur egungo gerrei buruz? Gure aitzinekoek edo guk geronek haietan egin dugunaz? Lehenbiziko lerroko trintxeretan eta

**«NAHI GENUKE
PARTITU ZIREN
HAZIEK FRUITUA
EMATEA GERORA»**

atzeguardian emakumeek eta gizonek izaniko borrokaldiez? Oraina bertze manera batean ikusteko eta etorkizunari begira pentsatzen hasteko lagundu ote digu batere? Modu berezian aipatu beharko genuke barrenean aritu garenek bizi izan

duguna. Eta hori ere ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Adin diferenteko hogeit lagun juntatu gara, auzolanean eta auzojostetan. Hogeit artista, gehienak bat ere esperientziarik gabeak. Hori bai, hagitz gidari onak genituen, eskarmentu handia zutenak. Zenbat erakutsi diguten, eta zenbat ikasi dugun denek elkarrengandik. Eta hori dena, euskaraz.

Badira antzerkigintzan ari diren talde gehiago gure eskualdean, badira kanpoko taldeetan ere ari diren hemengo antzerkilariak, eta inguruko bertze herri batzuetan ere izan dira gurearen gisako esperientziak: herri-antzerkiak, antzerki-lantegiak. Polita litzateke horiek eta guk ere orain sentitu dugun sukarra bertze batzuei kutsatzea eta martxan den dinamika honek bizirik segitzea, eragiten diguten gaiak plazara ateratzeko, hitzaren eta gorputz adierazpenaren bidez istorioak kontatu eta pentsarazteko. Horretan laguntzen ahal dutenek ongi kontuan hartu beharko lukete mundu hau, lehenagotik hartzen ez badute (udaletako kultura teknikariek, eskoletako irakasleek edo zerbait antolatatu nahiko lukeen edozeinek).

Bertzalde, ikusten egon zinetenek badakizue *Harritik hazia* ez zela akabatzen azkeneko kantarekin. Antzezlanaren amaiera bertze proiektu baten hasiera zen eta da. Nahi genuen han partitu ziren haziak fruitua ematea gerora. Eta dagoeneko haziren bat hasia da ernatzen. Uda honetan espero da lurraren azalera agertzea: erne egon, eta agudo ikasiko duzue zer eta non izanen den.



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Mexikoko nahuatl hizkuntza

Aitzineko zutabearen erran genuen Garabide Elkartearen hizkuntza lankidetzaren egiten dugula, hau da, munduko hizkuntzen biziberritze prozesuak bultzatzen ditugula euskaldunek eta bertze hizkuntza aunitzek bidean pilatu ditugun esperientziak trukatzeko. Hori zehazteko gaur Mexiko alderat joanen gara eta han gaur egun solasten diren 65 hizkuntza indigenetatik haundienera begira paratuko gara: nahuatla.

Mexikoko Puebla estatuko mendizerran bizi da nahuatl komunitatea eta hango hizkuntzak, garai batean Azteken hizkuntza zenak, egun nahuatl edo nawa deitzen dena, 1.500.000 hiztun inguru ditu Mexikon, dialekto guztiak barne hartuta. Seguruenik ez duzu jakinen, baina zuk ere franko maiz erabiltzen dituzu nahuatl hitzak: adibidez, txokolate (xoco-, mingotsa, eta -atl, ura) jatorrian edari mingotsa zena, txikle (aztekek ahotan izaten baitzuten hango tziçtli landarea) edo tomate.

**«NAHUATL
HIZKUNTZA:
IRAGAN MINGOTSA
GOZOTZEN»**

Hizkuntzaren biziberritze lanaz gain, eredu sozioekonomiko propioa pentsatu eta martxan paratu zuten 1997an, Unión de Cooperativas Tosepan Titataniske ('Elkarrekin irabaziko dugu' náhuatl-*ez*) izeneko kooperatiba

elkartea sortu zutelarik. Gaur arte presentzia eta garrantzia du Cuetzalan inguruan eta TOSEPAN taldeak gisa guztietako proiektuak hartzen ditu barne, batzuk aipatzeko: TOSEPAN KALNEMAXTILOYAN (eskola), TOSEPAN KALI (ekoturismo zerbitzuak) eta TOSEPANTOMIN (kreditu kooperatiba). Horrekin batera aipatzekoa da 200 komunitate baino gehiagotan kooperatiba lokalak dituela martxan.

Garabidek harreman luze eta sakona du nahuatlekin eta, preziskiki, joan den martxoan izan ginen azkeneko beraien lurretan. TOSEPAN kooperatiban hizkuntza planak paratu nahi zituzten martxan eta horretarako Euskal Herriko enpresa batzuetan dauden euskara planen esperientzia hurbiletik ezagutu zuten. Garabide zubigile lanetan aritu zen eta Euskal Herriko EMUN enpresak aholkularitza teknikoa eman zuen TOSEPANeko kideekin lanean gogor aritzeko. Hiru aste eta gero lortu genuen nahuatl planak hezurmamitzea. Esperientzia aitzindaria da eta arras emankorra izatea espero duguna.

Garabiden uste dugu garrantzitsua dela Euskal Herrian horrelako proiektuen berri ematea eta horrela, bertzeak bertze, munduko hizkuntza gutxituek elkarri egiten ahal diogun ekarpena bistaratzeko. Bide berberetik, ekainaren 13an Berako Toki-Ona institutuan egonen gara ikasleei honen berri emateko eta, kasu honetan, Mexikoko bertze hizkuntza komunitate batzuk ere ezagutzeko.

11 GALDERA LABUR

LEIRE BARAIBAR ARESOAR GAZTEA

«Mendi lasterketetan oso gustura nabil azken aldian»

Nor da Leire Baraibar?

Geldirik egoten ez dakien aresoar 'setosa' bat.

Noiz hasi ziren mendi lasterketetan?

Duela lau urte hasi nintzen. Lehendikarraunean ibilitakoa naiz Orio eta Getariko arraun elkarteetan.

Azken aldian punta-puntan zabilta...

Oso gustura nabil aspaldian. Besteak beste ekainaren 2an Euskal Herria Mendi Erronkan egindako lanarekin gustura nago. Lortutako emaitza horiek aurrera egiten laguntzen didate... Orain, ekainaren 24an, igandean, Zumaian egingo den Flysch Trailean parte hartuko dut.

Semea, lanak, lasterketak... Non-dik ateratzen duzu denbora?

Zorteduna naiz, lanaldi erdia eta gainera asteburuetan egiten dudanez, astean zehar antolatzeko errazago daukat. Etxekoak ere hor egoten dira esku bat botatzeko.

Zumaiarra edo Zumaian bizi den aresoarra?

Nik argi daukat, Zumaian bizi den 'aisoarra' naiz.

Zer du Zumaia Aresok ez duena?

Zumaiaak itsasoa du baina Aresok lasaitasuna, batez ere udan asko eskertzen duguna.

Herrira maiz bueltatzen zara?

Ahal dudan guztietan izaten naiz eta laster ditugun festak ere aitzakia ona dira horretarako.



Zer da Aresoko festetatik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Kuadrillen eguna gustatzen gustatzen zait gehien, egun horretan sortzen den giroa ederra izaten da. Gutxien, berriz, ia urtero euria egiten duela. Ea aurten zorterik dugun!

Biharamunari aurre egiteko...

Areso inguruko edozein menditan itzuliren bat egitea aukera ona izan daiteke.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Oso arrunta naiz, gutxi behar dut zoriontsu izateko. Etxekoekin edo lagunekin egun-pasa eder bat pasatzearekin, esaterako, nahikoa dut pozik egoteko.

Amets bat?

Hurrengo urtean Zegama Aizkorri lasterketan ateratzeko aukera ematen duen dorsals horietako bat izatea (irri artean).

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - **BERA**

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA URTE OSOAN

okaNe

Kanttonberri 12 · BERA
T. /Fax: 948 630 018

HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane

ANSONEA OSTATUA

Pintxoak | Errazioak | Bokatak | Pizzak
Plater konbinatuak | Karta

ETXERA ERAMATEKO JAMARIA PRESTATZEN DUGU

Bertan egindako *pastel eta tartak* / ENKARGOAK HARTZEN DITUGU

T. **948 62 52 74** Foruen plaza, 1 · BERA

BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK MERIDA



IRAKURLEAK MINTZO

Toki Onaren 50. urteurrena ikasleen ikuspegitik

J. LEIZA, A. TELLETXEA, A. LARRALDE, L. IGOA, E. ALTZUGUREN, M. LARRAZA, O. OTXOTEKO, S. UGALDE, G. GHERCIU ETA B. GARCIARENA

Toki Ona institutuak 50 urte bete ditu eta mende erdia ospatzeko ekitaldien artean hiru mahai-inguru izan dira ikastetxeko ikasle ohiekin. Saio horietatik kontu batzuk jaso ditugu.

Lehenengoan, 1967-1987 ikasturteetako hainbat ikasleek Toki Ona sortzea «iraultza industrial modukoa» izan zela adierazi zuten, batez ere nesken-tzat. Ikastetxeak bide berriak jorratzeko egokiera eta prestaketa eman zien, hau berdintasunerako bidean aurrerapausoa izan zen, orduko emakumeek ezkondu ondoren lana utzi eta etxeko lanez arduratzea ohikoena baitzen.

Ikasle askok bertako «askatasuna» azpimarratu zuten. Esperientzia txar batek eraginda etorri ziren asko gurera eta hemen eskaintako trataera goxo eta pertsonala gogoratu zuten. Jasotako giza baloreen hezkuntza ere estimatzen dute. Ekitaldian ziren irakasleek, bestalde, ez zuten laudoriorik baizik jaso. Hasieran prestakuntza handiegirik izan gabe, dinamika eta metodologia berriak erabiltzen ahalegindu zirela adierazi zuten. Harrigarria izan zen orduko irakasle eta ikasleen artean hain harreman ona ikustea!

Bigarren saioan, 1987-2007 bitarteko ikasle ohi batzuek esku hartu zuten eta gazte garaiko istorioak kontatzean bere «irribarre nostalgikoa» nabarmendu nahi genuke. Ikastetxeak Bortzirietako herritarrak elkartu eta elkar ezagutzeko aukera eman zien. Maitemintzeko parada ere izan zuten zenbaitek baina,

gehienek lagun handiak egin zituzten, gaur egun ere mantentzen dituztenak. Pauso garrantzitsuenetakoa ikasketak euskaraz egiteko aukera izan zen. Hasieran bide hori gutxi hartu bazuten ere, egun, institutuko ikasle gehienek euskaraz egiten dituzte ikasketak.

Egun gogoangarriez galdetuta, San Juan Bosko eguna da garai guztietako ikasleek aho batez aukeratu dutena. Irakasleek ere goraiatu izan dute, ikasleen beste alderdi eta abilezia ezagutzeko aproposa zelako. Ikasleen erresidentzia ere aipatu gabe ezin utzi, oroitzapen eta pasadizo anitzen lekuko izan baita. 1979-1980 ikasturtean, lehen aldiz, urrutiko ikasleei Toki Onan ikasi eta bertan bizitzeko zerbitzua eskaini zitzaion. Erresidentziako neska eta mutilen arteko gorabeherarik ez zen falta izan, eta hori dela medio, mojekin istiluak eragin zituen elkarbizitzak.

2007-2017 promozioetako ikasleak entzuteko tartea izan zen hirugarren saioan. Oroitzapen on ugari dituzte: San Juan Bosko egunaz, ikasketabidaiez, atzerrira egindako bidaiez, klasean bizitutakoez... Gogoan dituzte ikasle bizitzako «une estuxeagoak» ere, ikasketen eskakizun altua, batxiler 2. mailako presioa... Ikastetxeak behar lituzkeen aldaketez galdetuta, ikasle gazteenen babesa, zenbait lekuren eraldaketa eta itxura arloko berrikuntzak aipatu zituzten. Azken urte hauetako anekdotak ere ekarri zituzten gogora eta irriak eragin zituzten.

Horrenbestez, ikasleontzat Toki Ona ez da ikastetxe bat bakarrik izan, gure bizitzaren parte ere izan da. Gure hezkun-tzaz arduratu da akademikoki eta pertsonalki, eta gainera, bere lana ongi bete du. Anitz urtez!

BOTA BERTSOA



IXIAR ELORTZA JAUREGI
BERAKO BERTSOZALEA

Nor izanaren kodeak

Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian.

*Lau urteko haur baten irrifar
zintzoak bezain umilak
jendarte ereduaren ispilu
diren begi biribilak.
Zergatik duzu hain ile motza
ta mutilen zapatilak?
Gaur eguneko manikiak ta
garai bateko jentilak.
Dena hain karratua, bertikal
gizartearen perfilak
ahopeka solastu ohi diren
epaile-fiskal isilak.
Kritikoak izanez ireki
iritzien maratilak
lepotik goiti ez baitu agintzen
aluak edo zakilak.*

*-Ama zuretzat polita al nago?
Mesedez erran egia
-Kanporat sendo agertu hadin
landu barne irudia
genero rola korapilatuz
estereotipo haria
arropa, jarrera ta itxura
kontzientzian zauria.
Praktika klaseak eskasian
ta sobera teoria
ezarritako eredu grisari
obedientzia zuria
iritzi askean hegaldatu ezin
kaiolan dagon xoria
etxeko heziketak alda beza
gure esku den zoria.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak



Betika taldea zu laguntzeka

Betikoak betikoekin

Hogei urte baino gehiago daramatzagu sektore honetan lanean. Eskualdeko herritarrekin lan egin izan dugu. Berriki sortutako lan taldea izanagatik, bai sektorean, baita eskualdean ere, **betikoak gara.**

Punta-puntako zerbitzua

Instalazioak baldintza higieniko-sanitarioen arabera eta gure bezeroei **erosotasuna eta irisgarritasuna bermatzea** lehenetsiz eraiki ditugu. Diseinu eta dekorazio mimatuz hornitutako gela handi eta argitsuek, momentu zail eta gogorrek arintzen laguntzen dute. Instalazio horiek eta arlo honetan dugun **esperientzia eta profesionaltasuna** uztartuz, **punta-puntako zerbitzu pertsonalizatua** eskaintzea dugu helburu.

Pausoz pauso zuengana

Momentu zailetan laguntza eskatzen diguten **Malerreka** eta **Bertizaranako** herritarrak beso zabalik hartuko ditugu, baita **Baztan** eta **Bortzirietakoak** ere. Guztiengandik **hurbil** egon gaitzen, laster ezaugarri bereko **bertze beilatoki bat irekiko dugu, Elizondon.**



24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

«Lehen sektoreak balioetsia izateko bultzada behar du»

OLAIA URRUTIA SALDIASKO AGRONOMIA-INGENIARIA

Ikerketan egin duen hamarkada eskaseko ibilbidean urrats irmoak eman ditu Urrutiak. Besteak beste, egin duen doktoretza-tesiari esker, bildots haragi osasungarriagoa lortu du.

NEREA BAZTERRIKA SALDIAS

Asko ikusia, asko ikasia da Olaia Urrutia (Saldias, 1986). Familiak abeltzantzarekiko izan duen atxikimendua eta diseinu arloa gustuko izateak eraginginda, agronomia-ingeniaritza ikasi zuen, bi zaletasunak uztartzeko bide eman ziona. Hastapen urrats horien ondotik, agrobioteknologiarekin loturako masterra egin eta bioteknologiako tesia aurkeztu zuen, bildots haragi osasuntsuagoa lortu zuen. Egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan zenbait irakasgaitan laguntza eskaintzeaz gain, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertaldearekin batera, ikerlan batzuetan murgilduta dabil.

Zer eragin izan dute inguruneak eta ingurukoek zure ibilbidean?

Batetik, herrian hazi eta bizi izanak animaliekin hartu-eman zuzena izatea ahalbidetu dit; eta bestetik, familian abeltzainak izateak animaliekiko lotura sendotu du. Aitak, beste bi kiderekin, urte askoz esne-behiekin lanean jardun du eta egun esnetako ardien ustiatagia dute. Horri nire diseinu arloko zaletasuna gehitu behar zaio. Agronomia-ingenieritzak dena biltzeko bide eman dit. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi familiak hori guztia aurrera eramateko eskaini didan laguntza. Aita askotan galdera pila batekin erotzen nuen... **Ingenieritza bukatu ondotik masterra eta tesia ere egin dituzu...**

Agrobioteknologiako masterra eta bioteknologiarekin erlaziozionatutako tesia egin ditut. Bien bitartean, tesiarekin lo-

tura zuzenik ez zuten proiektu batzuetan aritu naiz ikerlanean. Horietako bat txekor haragiarekin lotua izan zen,



Laborategian 'in vitro' ernalketa prozesua egiten.

«FRISIAR ARRAZAKO ESNE-BEHIEIN IN VITRO ERNALKETA LANTZEN ARI GARA»

«ARDI-AZIENDA KOPURUA %40 JAITSI DA AZKEN HAMARKADAN»

piriniotar edo frisiar arrazako txekorrek, zehazki. Txekor horien muskuluetan gantzaren deposizioa nola gertatzen den landu genuen, haragiaren kalitatea hobetzeko helburuz. Albaikide enpresarekin ere hartu-emanen dihardugu. Frisiar arrazako esne-behien *in vitro* bidezko ernalketa lantzen ari gara. Besteak beste, 2016ko irailean Baztango ustiategi batean metodologia hori erabiliz bi txahal jaiotzea lortu genuen. Txahal horien ama ezusteko istripu baten ondorioz hil behar izanagatik, behi horrek ondorengoak uztea lortu genuen.

Bederatzi kongresu eskaini dituzu...

Bai, Norwegian, Australian, Frantziar, Danimarkar, Estoniar eta gainerakoak Zaragozan. Kongresu horiei esker animalia ekoizpenari buruzko azken ikerketak, azken metodologiak eta ideiak ezagutu eta asko ikasi dut. Era berean, arlo berean lan egiten duen jendea ezagutu eta bidaiatzeko aukera eskaini dit. Izugarri gustatzen zait.

Zerk bultzatuta eman zenuen tesia egiteko urratsa?

Bai ikasketa bukaerako, bai eta master bukaerako praktikak ere, biologia molekularreko laborategian egin nituen eta horiek egiterako momentuan ikerketa gustuko nuela ohartu nintzen. Hori horrela, 2011an ikerketa munduan sartu nintzen. Orduztik murgilduta nabil.

Zein izan zen tesiaren abiapuntua?

Azken urteetan kontsumitzaileek beraien dietetan elikagai osasuntsuak sartzeko duten ardura handitu da. Hori horrela, eta hausnarkarien haragian gantz-azido aseek proportzio nabarmena dutela kontuan hartuz, omega-3 gantz-azidoak animalien dietan sartu eta honek haragiaren gantz-azidoen konposizioan zuen eragina aztertzea izan zen abiapuntua.

Besteak beste, Nafarroako ardi-aziendak duen tradizio historikoa

bildu duzu. Bilakaeraz zer esan dezakezu?

Tradizio historiko handia duen azienda da. Hala ere, azken hamarkadan gainbehera handia izan du. Animalia eta usiattegi kopurua %40 eta %9 jaitsi dira, hurrenez hurren. Era berean, bildots haragiaren kontsumoak nabarmen egin du beheiti. Joeraren berri barenen arren, datuak ikustean altuak zirrela berretsi nuen.

Zein izan da lanaren helburu nagusia?

Gantz-azido poliasegabeetan aberatsak diren lehengaiak (linaziak, txia haziak eta itsas-mikroalgak) Nafarroako arrazako bildotsen dietan sartzeak duen eragina aztertzea. Eragin hori, besteak beste, gantz-azidoen metabolismoarekin erlazioa duten geneen adierazpenean izan dut aztergai.

Hiru entsegu egin dituzu. Zer egin duzue bakoitzean eta zein izan dira emaitza nagusiak?

Lehenengo entseguan Nafarroako arrazako 36 bildots ar hiru taldetan banatu eta ohiko dieta eman zitzaizen (garagarra, soja eta lastoa). Bigarren taldeari elikagai horiez gain, %5a linazia eman zitzaion; eta hirugarrenari %10a. Bigarren entseguan ere hiru talde egin ziren. Lehenak garagarra, soja eta lastoa jan zituzten, bigarrenak %10a linaziak eta hirugarrenak %10a txia haziak. Emaitzek linazia eta txia haziak zuten dietaz elikatu ziren bildotsek ez zutela hazkuntza alde nabarmenik izan adierazi zuten. Aitzitik, omega-3 kantitatea handitu eta omega-6 eta omega-3 gantzen erlazioa hobetu zuen. Hirugarren entseguan bi talde egin ziren: batetik, %10ean ohiko linaziak zituen dieta eman zitzaizena; eta bestetik, garagarra, soja, lastolinaziak eta mikroalgak zituen dietak. Emaitzek adierazten zuten, mikroalgak bildotsen hazkuntzan eragin negatiboa dute. Gantz-azidoen konposizioari dagokionez, emaitza hobeak izan ziren. Izan ere, osasungarria



Olaita Urrutia 'in vitro' ernalketako proiektuaren bidez lortutako txahaletako batekin.



Biologia molekularreko laborategian, Danimarkan aurkeztutako posterrarekin.

den DHA gantz-azidoa igotzea lortu zen. Halere, algen erabilerak haragian usain eta zapore arraroak eragin zituen. Bestalde, bitxikeria moduan, lihoa zeraman bildots haragia ez zitzaizela besteetan bezain pisutsua egin adierazi zuten. Baina hori ez genuen neurtu...

Zein izan ziren tesiaren ondorio nagusiak?

Linaziak eta txia haziak bildotsen dietan barneratzeak ez zuen ez bildotsen hazkuntzan ez haragiaren kalitate sentoralean aldaketa nabarmenik izan. Algak txertatzeak, ordea, bi parametro horietan eragin negatiboa izan zuen. Bestalde, liho, txia eta algen erabilerak osasungarriagoak diren hara-

giaren gantz-azidoen hobe-kuntza eragin zuen.

Ondorio horiek aintzat hartzeak zein onura eragin ditzake?

Etorkizunean animalientzat egingo diren nutrizio estrategietan kontuan hartzeak gantz-azido poliasegabeen iturria zein den jakiten eta inklusio mailaren aukeraketan lagun dezake. Horrela, gantz-azido poliasegabeen aberastasuna lor daiteke.

Tesiak izan duen harrera eta oihartzuna espero zenuen?

Egia esan ez. Niretzat lehen sektorearekin lotutako lan honek horrelako harrera izan duela ikustea oso pozgarria izan da. Lehen sektoreak, behar bezala balioetsia izateko, bultzada bat behar du.

Orain, baduzu beste lanik esku artean?

Aipatu dudan piriniar eta fri-siar arrazako txekorrek eginiko proiektuaren harira, artikuluko zientifikoaren idazketa egiten ari gara orain. Gainera, gene-adierazpena neurtzeko eskuragarri dauden metodologiak ikasten eta lantzen ere badihardugu. Horretarako, berriki Irlandako ikerketa zentro batean egonaldia bat egin dut. Bestalde, *in vitro* enbrioiekin erlazionatutako beste proiektu bat ere badugu esku artean. Esne-behiekin lotuta, Gipuzkoako zenbait ikulutan genomika arloan egiten ari diren proiektu batean ari gara lanean. Bien bitartean, unibertsitatean zenbait irakasgaitan klaseak eta ikasleen ikasketa bukaerako lanak ere bideratzen ari naiz.

Etorkizunera begira baduzu arreikuspenik?

Buruan beti ditut ikertuko nituzkeen ideiak. Esate baterako, lipidoak odoletik zeluletara sartzeko prozesuan parte hartzen duen gene batek grasaren deposizioan funtzio garrantzitsua izan dezakeela pentsatzen dut. Eragin hori, noizbait, baldintzak aldatuz, sakonki aztertzea gustatuko litzaidake.



Lesakako ArcelorMittal lantegiaren barreneko irudia. UTZITAKO ARGAZKIA

60 urte industria Lesakara ailegatu zela

1958ko ekainean sortu zen Lesakako Laminaciones lantegia. 60 urte beranduago eta urteurren horren harira, gaur egun ArcelorMittal Lesaka den enpresak, ekainaren 26an Ate Irekien Jardunaldia antolatuko du

G. PIKABEA LESAKA

Ospakizunetarako egunak dituzte Lesakako ArcelorMittalen, gorabeherak gorabehera, hilabete honetan, 60 urte beteko baititu Baztan-Bidasaldeko motore ekonomiko garrantzitsuetariko izan zen Lesakako fabrikak.

1958ko ekainaren 16an sortu zen Laminaciones de Lesaka. Egun horretan, Jose Luis Varez ingeniaria buru zuen industrialari taldea notarioaren aitzinean agertu omen zen, altzairuaren ijeketan ariko zen enpresa bat sortu nahi zutela erranez. Nafarroako Administrazioak industria sustatzeko emandako laguntzei esker eman zuen Varezek urratsa, baina, nonbait, ez zen hori aski izan; aitzinera egiteko herri oso bat konbentzitu behar izan baitzuen.

Batzuk alde eta bertzeak kontra, eztabaidak sortu zituen fabrika irekitzeko asmoak Lesakan. ArcelorMittaleko iturrien arabera, «hasiera batean, udalbatzak Vazezi ekimena begi onez ikusten zutela eman zion aditzera, eta Udalaren Osoko Bilkurara joateko eskatu zioten». Hala, 1957ko abuztuaren, Varez Osoko Bilkurara hurbildu omen zen: «eztabaida luzearen ondotik, industria-jardueraren ezarpena errazteko erabakia hartu zuten. Alabaina, 1958ko martxoaren 24ra arte Lesakako Udalak ez zuten

**70EKO
HAMARKADAN
2.000 LANGILETIK
GOITI IZAN ZITUEN**

ebatzi proiektua udal-interesekoa zela eta horrekin batera, bi milioi pezetako laguntza onartu zuen. Urte bereko apirilaren 2an, Udalbatzako kideak eta Udalaren zergadun nagusiak biltzen zituen Hogeiko Batzarrak erabaki hori berretsi zuen». Hala hasi zen gurtia.

Goiti eta beheiti

200 langile eta urtean 70.000 tona ekoizteko hasierako aurreikuspenak erraz gainditu zituzten urteekin: 70eko hamarkadaren erdian, 2.000 langiletik goiti eta urtean

**2007AZ GEROZTIK,
ARCELORMITTALEN
ESKU DAGO
LANTEGIA**

800.000 tona ekoiztera ailegatu zen Lesakako planta. Gainera, Lesakako Arratzubi eta Luberrondon ez ezik, Berako Zalain-Zokon eta Legasan ere fabrikak ireki zituzten.

ArcelorMittalen esku

1973an, sektorea egoera zailean zegoenean, Varezek AHV Bizkaiko Labe Garaiei saldu zien Laminaciones. Urte mugituak etorri ziren gero: 70eko hamarkadako eta 1980ko grebak, 1992an langileen protestarekin Lesaka eta Madril lotu zituzten Burdinaren Martxa...

Jabez ere aldatu zuten behin baino gehiagotan: 1997an, Aceralia izena hartu zuen, 2002an Arcelor, eta handik guttira Zalaingo lantegia Condesa taldeari saldu zioten. 2007az geroztik, ArcelorMittal Lesaka du izena, izen bereko enpresa delako Lesakako eta Legasako planten burua, mundu mailako siderurgia-talde nagusietako bat; 19 herrialdeetan industria-instalazioak dituen eta siderurgia- eta meatzeko-ekoizle nagusia dena.

Bertzalde, gaur egun, Lesakako lantegian urtean 240.000 tona ekoizten dituzte eta Asturiasko, Saguntoko eta Etxebarrikoekin batera, Asturiasko Klusterra osatzen du. Erakunde hori liderra omen da espainiar estatuko altzairuzko produktu lauen fabrikazioan. Enpresatik gaineratu dutenez, «Nafarroako planta, Legasako Pintura Lerroa eta Galbanizatze eta Pintatze Lerro Konbinatuari esker, altzairuzko lakatu aitzineko produktuen merkatuaren buruan dago».

Ekainaren 26an hitzordua

Ekainaren 26an Ate Irekien Jardunaldia egingen dute Lesakako lantegian, «Lesakako siderugian daramatzan 60 urteak ospatu» nahi dituztelako. Izan zenaren eta denaren arteko aldeak alde, Baztan-Bidasaldeko ekonomiaren ardatza izan den fabrikaren historian, bertze hitzordu bat izanen da.

Lesakako fabrikako langileekin solasean



ROSA ERRANDONEA KEREJETA
ERRETIRATUA (BERA)

«Lantegiak denontzat lana ekarri zuen»

16 urterekin lanean hasi eta 42 urte egin zituen fabrikan: sei urte Erosketa Sailean eta Aholkularitza Juridikoan gero. Urte horietan, «tentsio handiko uneak» ezagutu zituen, baina horien gaintetik «oroitzapen onak» gelditu zaizkio: «azken unera arte, gustura aritu nintzen». Lantegiak «denontzako lana ekarri zuela» dio: «ordura arte, gizonezkoak Ternuara, Ameriketara... joaten ziren eta emakumeak zerbitzatzera. Fabrikarekin denok aitzinera egin genuen».



UNAI ORDOKI AGESTA
ELEKTRIZISTA (ARANTZA)

«Oraintxe hasi dira langileak hartzen»


2006ko ekainean lanean hasi zenean, «instalazio guztiak martxan» ezagutu zituen: «700 langile inguru ginen. Orain, makina aunitz geldirik dira eta 200 pasatxo gara». Lana badela uste du, baina «jende aunitz jubilatuta da, eta urte aunitz joan dira inor hartu gabe. Orain hasi gara langile berriak ikusten». Baina «multinazional baten esku gaudela» ohartarazi du: «beretzat Lesakako fabrika guretzat hamar zentimoko txanpon bat bezala da».



BIXENTE GARRO LANTZ
ERRETIRATUA (LESAKA)

«Zorte handia izan genuen fabrikarekin»

15 urterekin, makinekin ikasten hasi zen Pasaian, eta urte bat eta erdiren buruan, Lesakan hasi zen. Argi du gazteentzat «aukera handia» izan zela: «orduan, Ameriketara, mendira... joaten zen jendea eta guk zorte handia izan genuen. Lanetik aparte formazioa ere eskaintzen ziguten». Fabrikan 2.000 langiletik goiti ezagutu zituen eta aitortu digunez, «pena sentitzen dut, hainbertze jende lanean aritu ondotik, orain horrela ikusita».



IDOIA ALSUA MITXELENA (IRUN)
MANTENIMENDUKO ARDURADUNA

«Erreferente bihurtu gara bezeroentzat»

2004an hasi zen lanean eta kontatu digunez, «krisiak lantegia astindu zuen eta momentu gogorak bizi izan ditugu». Halere, 2011n jarritako galbanizatu eta margotze lerro konbinatuari esker, «altzairuaren merkaturuan posizio lehiakorra lortu dugu». Bezeroentzat «erreferente» omen dira, baina etorkizunaz galdetuta, «hori iragartzea ez da batere erraza», dio: «konpententzia gero eta nabarmenagoa da. Egunez egun hobetzeko erronka dugu».



AURELIO GUTIERREZ MARTIN
ERRETIRATUA (BIZKAIA)

«Epe laburrean badu etorkizuna lantegiak»


1995ean Bizkaiko Labe Garaiak itxi eta bertze fabriketan birkokatu zituzten langileetako bat da bizkaitarra: «1996an etorri nintzen Lesakara, familiarekin». 2002an, ELA sindikatuarekin, komitean sartu zen eta 2016an erretiratu zen arte horretan aritu zen. Egun, Santurtzin bizi da, «etorritako gehienak Bizkaira itzuli gara». Erran digunez, «etorkizuna badu lantegiak; epe laburrean ez du berregituratzerik izateko arriskurik».



MARTIN BARBERENA IBARRA
MEKANIKARIA (ZIGA-ZIGAURRE)

«Orain ongi goaz, baina ezin da jakin»

2005etik ari da Lesakako lantegian eta mantentzeko mekanikaria da. Bere hitzetan, urteotan, «inbertsio handiak egin dira, baina aldi berean, krisiarekin, makina garrantzitsu batzuk gelditu dira eta plantilla nabarmen murriztu da». Dioenez, «egungo merkaturuan, Lesakan egiten den produktua konpetitiboa da. Horretan segitzen dugun bitartean, ongi goaz». Halere, «multinazionalekin inoiz ezin da jakin. Ea bertze 60 urte egiten dituen», dio.



KONTXITA ARAKUES MAZIZIOR
ERRETIRATUA (LESAKA)

«Fabrikak herritarrak parekatu zituen»

Idazkari-ikasketak egin ondotik hasi zen fabrikan, 17 urterekin: «garai hartan ezkontzen ziren emakumeak lana uzten zuten eta batzuk atera zirenean, mordoska sartu ginen». Hantxe aritu zen erretiratu arte, giza baliabideen sailean. Aldaketa aunitzen lekuko izan zen, baina bere ustez, «fabrikak bizi handia eman zion Lesakari eta herritarrak maila berean jarri zituen, jauntxo ez zirenak ere soldata finkoa jasotzen hasi zirelako».



ANTXON ELIZALDE LOIARTE
PRODUKZIOA (ZUBIETA)

«Ez dago jende gaztea hartzeko martxarik»

2000an hasi zen lanean Lesakan eta produkzioan aritu da orduetik. 18 urteotan lantegia «asko» aldatu dela dio: «makina asko gelditu dituzte eta ez dago jende gaztea hartzeko martxarik». Hasi zenean, gazteak hartzen omen zituzten, baina «orain, dena azpikontratazio bidez egiten dute», azaldu digu. «Jende gaztea ez badute hartzen eskualderako eta fabrikarentzako etorkizun kaskar samarra ikusten dut».



31. edizioko saridunak, ekainaren 1ean Berako Kultur Etxean. A. AROTZENA

Baztan-Bidasoaldeko bertsopaper lehiako sariak eman dituzte

Hogeita hamaikagarren edizioan 161 lan aurkeztu dituzte eta Berako Julen Zelaietak eskuratu du sari nagusia

TTIPI-TTAPA BERA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoaldeko XXXI. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 1ean Berako Kultur Etxean egindako jaialdian.

Guztira 161 bertso-sorta aurkeztu dira aurrean.

Saridunak

A mailan (10 urte arte), lehen saria Lesakako Xabier Garro Lasherasek lortu du *Infernua* lanarekin. Bigarren saria, Mikel Zozaia beratarrak eskuratu du *Iniesta* izeneko bertso-

sortarengatik. Aipamen berezia Berako Axuri Zapiain Arlegik lortu du, *Karabana* lanarekin.

B mailan (11-14 urte), lehen saria Imanol Mesa Garmendia lesakarrak lortu du, *Argia* lanarekin. Bigarren saria, Berako Amaiur Goñi Elortzak eskuratu du, *Hazi baten indarra* lanarengatik eta Lesakako Lexuri Arotzena Portuk epaimahaiaren aipamena jaso du, *Amona* bertso-sortarengatik.

C mailan (15-18 urte), lehen saria Lesakako Ane Telletxea Igoak eskuratu du, *La mana-da* izeneko bertso-sortarekin. Berako Ekhiñe Zapian Arlegik epaimahaiaren aipamena jaso du, *Zer da bertsoa?* lanarengatik.

D maila nagusian (18 urtetik goiti), lehen saria Berako Julen Zelaieta Iriartek eskuratu du *Seme, besarka nazazu* lanarekin eta bigarren saria Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarrek, *Justiziaren balantzak* lanarekin.

Sari banaketaren aitzinetik, Bortzirietako bertso eskoletako ttikienek antzerkitxoak egin zituzten eta bat-bateko saioan, Etxalarko Etxahun Azkarraga eta Berako Amaiur Goñi gailendu ziren.

Usategietan ur-biltegi berria egiteko dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Udalak 2017-2019 azpiegitura planean sartutako proiektuetako batzuk hasi dira dirulaguntza jasotzen. Horietako bat Usategietan ur-depositu bat egiteko proiektua da.

Guztira 268.185,39 euroko (BEZik gabe) aurrekontua du lanak eta lasolatik heldu den ura bilduko dute bertan, alde batetik Ibardinera eramateko eta bertetik Eltzaurdia auzoan barrena Kaxernako biltegira.

150m³ inguru izanen ditu biltegiak eta Eltzaurdia auzoa gurutzatzen duen urean hodia ere berrituko da, bi hodi jarri, bat ura pasatzeko eta bertzea etorkizunean ura herritik goiti ponpatu ahal izateko.

Ur biltegi honekin Eltzaurdia auzoko uraren kalitatea hobetzea espero dute eta etorkizunean Ibardinera herritik ura eramateko ere balioko du.

Kontratazio atarian jarriko da proiektua obra egiteko interesa duten enpresek eskaintzak aurkezteko.

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformatu, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Elektragailuen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ALTZATEKO BESTAK

1. PINTXO JIRA

BERA

OSTATUEN ARTEKO PINTXO LEHIAKETA

EKAINAK **15**
19:00 - 22:00

EKAINAK **16**
12:00 - 15:00
19:00 - 22:00

EKAINAK **17**
12:00 - 15:00

Sari banaketa: **ekainak 17**, igandea.
Arratsaldeko **8etan** Altzateko plazan.

ANIMATU ETA PARTE HARTU BOZKETAN!

PARTE HARTZAILEAK:

AUZOA
BIDAXKA
ERREKALDE
IKUILU
KATAKU
LIXOIA
XUGA

Alzateko bestak ospatuko dituzte asteburu honetan

Hainbat ekitaldi izanen dituzte ekainaren 15etik 17ra, tartean 'Pintxo-Jira', ostatuen arteko pintxo lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Alzateko bestak ospatuko dituzte ekainaren 15etik 17ra, egitarau zabalarekin. *Pintxo-Jira*, ostatuen arteko pintxo lehiaketa ere izanen dute.

Ortziralea, ekainak 15

- 20:00etan Alzateko plazan txupinazoa bota eta goxokiak banatuko dituzte. Ondoren karrketan barna erraldoi, buruhandi eta txistulariekin.
- 20:30ean bertso-poteoa Bera, Durango eta Usurbilgo bertso eskolekin.
- 22:30ean suzko zezena.
- Arratsean, kontzertuak.

Larunbata, ekainak 16

- 12:00etan bermuteo-kalejira, Bera-Lesakako soinuarietkin.
- 14:00etan auzo bazkaria Uraldea karrikan, zikiro jatea. Txartelak Purienean eta ostatuetan salgai daude, 20 euro-



Dantzariak saioa eskainiko dute.

tan. Small Band-ekin bazkailondo animatua izanen da.

- 19:30ean batukada.
- 22:30ean suzko zezena.

Igandea, ekainak 17

- 12:00etan euskal dantzak Alzateko plazan.
- 16:00etan haur jolasak suhiltzaileen parkean: apar piztina, tirolina...
- 18:00etan funky dantzak Alzateko plazan.
- 20:00etan boleto eta pintxo-jira zozketa.

Baietz Futboleko kanpua ekainaren 25etik 30era

Baietz futboleko kanpua antolatu dute aurten ere, Baietz Kirol Kudeaketak antolatua. Ekainaren 25etik 30era eskainiko dute. 9 eta 14 urte arteko neska-mutikoak 09:00etatik 13:00etara ariko dira eta aste osoaren prezioa 110 eurokoa da (bigarren senideak 15 euroko deskontua izanen du). 5 eta 8 urte arteko haurrak 10:00etatik 12:00etara ariko dira eta prezioa 75 euro da. Izen emateko epea ekainaren 15ean bukatuko da, baietzfutboleko@gmail.com helbidean.

Emakumeen pala txapelketa jokatu dute ortziraletan

Ekainaren 15ean, ortziraletan, emakumezkoen pala txapelketa jokatu da Eztegar pilotalekuan, teniseko pilotekin. Bikote bakoitzak bortz euro ordaindu beharko ditu. Interesa dutenek 661 772065 telefonora deitu beharko dute, ekainaren 13a bitarte. Bakarrik dauden jokalariei bikote bat bilatzen lagunduko dutela ere jakinarazi dute. Irabazleek sari ederrak irabazi ahal izanen dituzte eta parte-hartzaile guztiek afari ederrarekin borobilduko dute arratsaldean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasketa bukaerako orlak Toki Onan

Toki Ona Institutuak Ekitaldi Akademiko berezia ospatu zuen maiatzaren 25ean: ikasturte honetan beraien ikasketak bukatu dituzten 101 ikasleei orlak eman zizkieten Kultur Etxean. Hain zuzen, 1970eko ikasturteko ikasle ohiek eman zizkieten oroigarriak gaur egungoei.



UTZITAKO ARGAZKIA

XXIV. Dantzari Ttiki Eguna bikaina

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Gure Txokoak Dantzari Ttiki Eguna ospatu du ekainaren 2an. Aurtengoa hogeita laugarren edizioa izan da eta Gure Txokoako dantzariet gain, Legazpiko Korosti, Lezoko Murixka eta Lesakako Tantirumairu dantza taldeetakoak bildu dira.

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Astelehenetik ortziraletara:
07:15etik aitzinera
LABE ZAR
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

San Joan bezperako plazako sua piztuko dute Solaslagunek

Euskaraldia izanen da aurtengo protagonista eta kantuak, dantzak, herri-afaria eta musika izanen dira plaza inguruan

AITOR AROTZENA

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Euskara Batzordeak hainbat ekitaldi prestatu ditu San Joan bezperarako. Aurtengoan Euskaraldia izanen da protagonista eta Lesakako Euskaraldia taldearen laguntza ere izan dute antolatetan.

Larunbatean 20:00etan ekitaldia izanen da plazan, *Guk ahoa bizi, zuek belarria prest?* goiburupean. Herri Koreografia izanen da, Euskara Batzordeko kideek adierazpena irakurriko dute Euskaraldia gaitzat hartuta, «denon borondatea, ilusio, gogoia eta lana behar baitugu ekimen hau martxan paratu eta azken helburua lortzeko». *Biziberrituz euskara* kanta abestuko dute, trikitilariekin eta Bortziritako Bertso Eskolak ere kantatuko du. 20:30ean Solaslagunak izanen dira aurten sua pizteko arduradunak, nolabait egitasmo honek laburbiltzen baitu Euskaraldia ekimena ere, «belarriak prestatuz lehen urratsa eman zuten eta gaur egun ahobizi izateko eta mingaina zorroz-



Ezpata-dantzariak suaren inguruan.

teko astero elkartzen dira». Euskara Batzordeak bi su piztuko ditu plaza inguruan (handia eta txikia) eta horietaz bakarrik arduratuko da.

Ondotik, ezpata-dantzari-taldeko neska-mutilek beraien saioa eskainiko dute eta 21:00etan herri afaria egingen da. Beti bezala, norberak bere afaria eraman beharko du eta Euskara Batzordearen kontura izanen dira mahaiak eta aulkiak. Plazan bertan bokatak eta edariak izanen dira. Zozketak ere egingen dituzte eta 22:00etan dantzaldia izanen da Jeiki Hadi taldearekin.

11 bortziritar Euskaraldia-reakin bat bideoa ere egun horretan aurkeztu nahi luke jendaurrean.

Leitzako Jeiki abesbatzak kantari larunbatean

Giltzarri Abesbatzak antolatuta, Leitzako Jeiki abesbatzak kontzertua eskainiko du ekainaren 16an, larunbatean 20:00etan komentuan. Zenbait loteren zozketak egingen dituzte emanaldiaren ondotik eta bildutakoa Tantirumairu ikastolarentzat izanen da.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa hilaren 22an Harriondoan

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du ekainaren 22an 20:00etan Harriondoan. Sarrerak sei eurotan salgai daude. Jesus Echeverriaren zuzendaritzapean, Anna Siwek (bibolina) eta Fco Javier Gomez (biola) ariko dira bakarlari.



AITOR AROTZENA

Ezagutu Dezagun Lesaka sari banaketa

Beti Gaztek antolatutako lehiaketan LHko 39 ikasle parte hartu dute. Ibai Criado, Kemen Garro, Alain Etxepare, Izaro Zelaieta, Maddi Zubieta, Maddi Hoyos, Beñat Zelaieta, Beñat Criado, Aitor Galardi, Ion Galardi, Ibon Ruiz eta Naiara Ubiria izan dira saridunak.



AITOR AROTZENA

VI. Elias Garralda Margo Lehiaketa

VI. Margo Lehiaketan, Ermuako Jon Idigorasek lortu zuen lehen saria eta Artziniegako Fernando Uretak bigarrena. Herrikoen artean, Javier Fagoaga gailendu zen. Ttikietan, Akior Martinez, Zihara Taberna, Ainize Mtnez, Maddi Hoyos, Maitane Erkizia eta Kattalin Txoperena saritu zituzten.

DenakBat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

JAIONE-COKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Sokorro Almandoz beratarrak irabazi du gasna lehiaketa

Hamabi gasna aurkeztu dira aurten eta herrikoen artean, Urtsuakoa eta Behekozubikoa izan dira onenak

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 2an Etxalarko II. Artzai txakur lehiaketa egin zen errota pareko zelaian. Ardi artaldeak Olazarretik eta Leuedertik ekarri ziren eta eskerrak eman dizkiete bi base-ri hauei. Lau zakurrek parte hartu zuten lehiaketan: Landaburuko bordako Xarpa, Bordaxuriko Kea, Axularko Tiki eta Kortariko Peio. Lanak epaitzen Xanti Elizagoien, Jon Azkarraga eta Joseba Danborriena aritu ziren. Zakur guzietan bikaina egin zuten eta denak izan ziren sarituak: pentsu zaku bana eta makila eramanzuten. Txapeldunak, Keak, txapela; bigarrenak, Peiok, bi botila ardo; hirugarrenak, Tikik, bi botila ardo; eta laugarrenak, Xarpak, tarta bat jaso zuten.

Igandean goizetik jende aunitz ibili zen herrian artisauen erakusketa ikusten. XXVI. Altxata gasna lehiaketara 12 gasna aurkeztu ziren. Lehenengo saria 120 euro eta trofeoa Berako Sokorro Almandozek irabazi zuen. Bigarren saria Pello Pegneguyrentzat izan



Gasna lehiaketako saridunak. IRUNE E.

zen; 90 euro eta trofeoa. Hirugarren saria, Kortariko bordara joan zen, 75 euro eta lore sorta. Etxalarkoen artean lehenengo saria Urtsuako Jorge Arizaleantzen izan zen, 50 euro eta trofeoa eta bigarren saria 30 euro eta lore-sorta Behekozubira joan zen, Juanamari Arburuarentzat. 120 bat lagunek herri bazkarian kantuz giro ederrean gozatu zuten. Lehiaketara aurkeztu ziren gasnen erdiak zozketatu egin ziren. Oraindik lau gasna erdiren sarituak ez dira azaldu. Hauek dira zenbakiak: 4261, 4682, 4685 eta 4700. Zenbaki hauetakoren bat duena Altxatarekin harremanetan jar da dila altxata@gmail.com edo 697397567 telefonoan.

Bestak iragartzeko kartel eta azal lehiaketa antolatu du Kultura Batzordeak

I. ELIZAGOIEN

Bestak iragartzeko kartel eta azal lehiaketa antolatu du Kultura Batzordeak. Lanak ekainaren 15eko 19:30 baino lehen aurkeztu behar dira KulturEtxean edo kulturetxea@etxalar.eus helbidean. Goitizen bat jarri behar da, eta aparte-ko gutunazal batean erantsiko dira egilearen datuak.

Kartelak formatu digitalean aurkeztu behar dira 300pp erresoluzioarekin eta bertikalean, edota kartulina edo paper lodian A3 neurrian. Azalak, berriz, A4 neurrian aurkeztu

behar dira, argazkiz edo marrazkiz egin, bertikalean. Bietan teknika librea erabili daiteke. Kartelean eta azalean *Etxalarko bestak 2018. Abuztuaren 14tik 18ra* testua agertu behar da nahitaez.

Sariak: Kartelaren irabazleak 50 euro eta Etxalarko Herriko Ostatuan bi lagunentzako otordua irabaziko ditu. Azalaren irabazleak, berriz, 100 euro.

Informazio gehiagorako edota zalantzak argitzeko kulturetxea@etxalar.eus edo 948 635386.

Haurraren Eguna ospatuko dute asteburuan

Guraso Elkarteak, Udala, Altxata Kultura eta Kirol Elkarteak eta Landagain eskolak antolatuta, ekainaren 15 eta 17an Haurraren Eguna ospatuko dute. Ortziralean 11:00etan Landagain Tiki abesbatzaren kontzertua. Ondotik, ikasleen lanen erakusketa. Igandean, 10:15ean, eskolako ateak berriz ere irekiko dituzte geletako erakusketak ikusteko. 12:30ean plazan XXX. ipuin topaketa. 13:30ean Bazkaria frontoian. 14:30-17:30 Txiribuelta elkar-tearen eskutik, jolasak eta musika. 17:30ean merienda.

San Juan suaren inguruan egitarau polita prestatu dute

Ekainaren 23an, larunbatarekin ospatuko da aurtengoan San Juan bezpera eta suaren inguruan egitarau zabala prestatu dute. 20:00etan merienda-afaria egingen dute frontoian. Bakoitzak nahi duena etxetik eramanen du eta bertan janen dute, denek elkarrekin. 21:00etan joareak joz herriari itzulia emanen diote eta ondotik, musikaz lagunduta suak piztuko dituzte plazan. Eskola zaharren ondoan jarriko den kontenedorea egun horretarako paper eta kartoia biltzeko izanen da.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altxata, 17 · BERA

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

ETXALAR
HOTEL-VENTA
lagunarte, familia,
kinto besta...
OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA
ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

Gure herrian egingen dute Emakumearen Oroimen Zelaia

Besta eta arte emanaldi tartean, uztailaren 15ean Emakumearen Oroimen Zelaia inauguratuko dute

NEREA ALTZURI

Joan den ekainaren 2an, oroimen historikoan oinarritutako eta emakumeak protagonista dituen *Harritik hazia* antzezlanaren emanaldia eskaini zuten herrian. Eta egitasmo horri segida emateko, Emakumearen Oroimen Zelaia sortzea pentsatu dute, non eta Arantzán, Udalak utzitako eremu batean. Antzezlanaren akabailan, hurbildu ziren guztiei ereiteko haziak banatu zizkieten eta hazi horiek aipatutako zelai horretara bideratzea nahi dute.

Emakumeen istorioak bilduz

Emakumearen Oroimen Zelaia uztailaren 15ean inauguratuko dute, besta eta arte emanaldiaren bitartez. Zelai horretara, haziak emandako landareak eramateko aukera izanen da. Horrela, landareekin batera, eskualdeko emakumeen istorioak batu nahi dituzte. Beraz, *Harritik hazia* emanaldietan egon zaretenoi eta hazia ereinez, landarea etxean duzuenek, ekimen honetan parte hartzeko deia egin nahi izan diete egitasmoaren sustatzaileek.

Zirkulazio zergak ordaintzeko hilabetea

Udalak, bando bidez, zirkulazio zergaren erreziiboak jendaurrean direla jakinarazi du. Ordainketak banketxeetan helbideratuak dituztenei ekain hasieran kobratu dizkiete. Helbideratuak ez dituztenek hilabete honetan egin behar dute ordainketa.

Solaslagunak igande honetan Arantzán

Igande honetan, ekainak 17, Solaslagunaren ikasturteari akabaila emateko, saio osagarria antolatu dute herrian. Eskualdeko solaslagunak eta Iruñea aldeko eta Hondarribiko mintzakideak bilduko dira hitzorduan eta egun-pasa Arantzán egingen dute.

Bestetako programaren II. azal lehiaketa

Aurten, bigarren urtez, bestetako programaren azalerako lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak, haurrei zuzendua. Arantzako eskolan ari diren 6 eta 14 urte bitarteko ikasleek parte hartzen ahal izanen dute eta bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal izanen ditu. Kolorezkoak izan beharko dute eta A4 formatuan eginak. Nahitaez agertu beharreko testua *Arantzako bestak 2018. Abuztuaren 14tik 17ra* izanen da. Lanak ekainaren 29ko 13:00 arte aurkezten ahal izanen dira Herriko Etxean.

Aranzadi Elkarteko tailerra ekainaren 22an

Ekainaren 22an, ortziralea, Aranzadi Zientzia elkarteko arkeologoak herrian izanen dira tailer bat eskaintzen. Bertzeak bertze, antzinako garaietan, sua nola egiten zuten erakutsiko diete hurbiltzen diren guztiei. Hitzordua 18:00etan plazan egin dute. Ondotik, arku-tiroan ariko dira frontoian. Su kontuekin segituz, biharamunean, ekainak 23, San Juan bezpera denez, sua piztuko dute herriko bazter bat baino gehiagotan eta herritarrak haren bueltan saltoka ibiliko dira.



AINHOA LARRETXEA

Dani eta Imanol Zegama-Aizkorri

Nazioartean hain ezaguna den Zegama-Aizkorri mendi maratoia egin zuten maiatzaren 27an Dani Iparragirre eta Imanol Lukanbiok. Lasterketa gogorra da, 42.195 kilometroko luzera eta 5.472 metrotako malda dituen, baina bi herritarrentzat hori ez zen oztopo izan lasterketa bukatzeko.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



BRANDOMEA S.L.
FRIGORIFICO DE LA BARRASKEZAR

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



Sarrolako fabrika, herriaren gaineko aldean ageri da argazkian. OSKAR TXOPERENA

Sarrolako fabrika zaharra noiznahi botako dute

Gerra ondotik zerri urdaitegirako ireki zuen Agustin Cabra donostiarrak eta bakailu idortegia ere izan da

TTIPI-TTAPA

Denbora gutiko kontua izanen da Sarrolako fabrikaren desagertzzea. Urte franko zeramazkien inork erabili gabe eta Herriko Etxearen aldetik saiakera aunitz izan da kentzeko. Eraikina hagitz hondatua dago eta teilatua pixkanaka erortzen ari da. Gaur egun ez da erraza bertara sartzera, inguruan daukan lar eta zikinarengatik, baina itxi ondotik, haurrak maiz ibili izan dira barrenean. Zail samarra izan da afera, jabetzaren gaia ere konplexu samarra zelako. Udalbatzak epaitegietan aitzinera egitea

erabaki zuen eta herriaren aldeko epaia lortu dute. Jabeek ez dute errekurritu eta Herriko Etxeak enpresa batekin hitzartuak ditu botatze lanak eta uda hasieran egitea espero dute. Gastuak bere gain hartuko ditu Herriko Etxeak, baina orubeari herriaren aldeko karga bat geldituko zaio. Agustín Cabra donostiarra izan zen gerra akautu bezain abudo fabrika eraiki zuena, zerri urdaitegirako. Bertze erabilera aunitz eman izan zaizkio, bakailu idortegiarena ezagunena, inguruan zabaltzen zuen kiratsagatik.

Erortzeko arriskua saihesteko, Tabernekoko baratzeko zuhaitza bota dute

TTIPI-TTAPA

Aspaldian komentatzen zen herrian zenbatekoa egiten ari zen Tabernekoko baratzeko zuhaitza, eukaliptoia zehazki. Tamaina horretako zuhaitzak herrian suposatzen zuen arriskuak eta urte guzian eroritako hostoek herriko langileei ematen zien lana ikusita, botatze-ko erabakia hartua zuen Herriko Etxeak. Orain dela aste pare bat gauzatu zuten auzolanean, baina lan horietan aritzen den aditu bat ekarrita.



Zuhaitza mozten. O.TXOPERENA

Biltoki Elkartearen 40. urteurreneko egitarau zabala

Biltoki Elkartearen 40. urteurrena ekitaldiz bete-betea prestatu dute ekainaren 23rako. 10:00etan bazkideen arteko ginkana. 11:30etik eguerdira eta arratsalde, Garagardo Besta. 14:30ean bazkideen bazkaria elkartearen. 20:00etan afaria plazan. 22.00etan San Juan suak plazan eta Ameli ipuin-kontalaria. Elutxa txaranga ibiliko da herrian, Herriko Etxeak, Biltokik eta estankoak antolatua. Arratsean dantzaldia Treku taldearekin. San Juan Egunez, 12:00etan San Juan Xarreko meza eta 14:00etan jubilatuen bazkaria, Baratzondon.

Maila onean ari dira herriko pilotariak han eta hemen

Maiatz hasieran Gazteizen jokaturako federazioen arteko GRAVNI txapelketa irabazi zuen Oian Canabal gazteak, trinketeko 22 urtez azpiko binakako modalitatean. Sanchez lagun izanik, Iribarren-Luro bikoteari irabazi zieten finalean. Irurtzunen ere txapelidun izan zen, Cordonekin bikote eginez, Nazabal-Arbizuri irabazi zien finalean.

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako txapelketan, berriz, kadete mailako txapela irabazi zuen Patxi Loiartek, finalean Aimar Berekoetxea mendean hartuta, 18-10eko emaitzarekin.

caser
residencial

Zure ondoan,
gehien behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita Pirineoko Atlantikoko departamentuarekin hitzartua (APA diru laguntza)
- Babespeko apartamentuak

www.caserresidencial.es



Herriko elkarte eta taldeak omendu zituzten egunaren hasieran. J. APEZTEGIA

Herriko elkarte eta taldeak Malerreka Egunean omenduak

Ama Sunbillakoa duen Isabel Elizalde kontseilaria ere omendu duten eta Ezkurrari pasa diote lekukoa

MAIDER PETRIRENA

Eguraldi euritsu eta goibelarekin abiatu zen Malerreka Eguna. Herrietako ordezkariekin batera, Amets Inda alkatea eta Udalak omendutako talde eta elkarteetako ordezkariak bildu ziren: Abesbatza, Antrotoki taldea, Antzakaitz kultur taldea, Auzolan Taldea, Dantzariak, Guraso Elkarte, inauterietako antolatzaileak, Konpartsa, Ramon Latasa Sariaren antolatzaileak, Sunbite Elkarte, Txistulariak eta Ulibeltzak Elkarte. Aureskua eta zapia jaso zuten opari. Jarraian Mendi abesbatzak lau kantekin giroa alaitu zuen.

Doneztebe, Ituren, Urroz eta herriko dantzarien saioa frontoian egin zen. Eguerdian Mendaur trikitixa eta pandero eskolako ikasleen eta joaldunen txanda izan zen. Euriak atsedena hartu eta joaldunak, Donamariako buruhandiak eta erraldoiak eta musikariak herrian barna jotzeko aukera izan zuten. Bitartean, Eratsun, Elgorriaga, Zubietako eta Sunbillako ordezkariak paellak prestatu zituzten. 300 bat lagun elkartu ziren baz-

kaltzera. Arratsaldean, museoko finalak, muxikoak eta bertze ekitaldi batzuk izan ziren.

Ilunabarrean, esku pilota jaialdia izan zen, Berako Enaitz Iparragirre Arretxearen alde. Bi partida jokatu zituzten. Lehena emakumezkoena izan zen eta horien artean, Naroa Elizalde zubietarrak eta G. Aldaik irabazi zuten, 22-4. Gizonetzkoetan, berriz, Titin III.a-Aldabe (Igantzi)-Elizalde (Ituren)- Ivan Azanza. Azken hauek 15-22 galdu zuten. Akitutakoan, Enaitzek pilotariekin argazki eder bat atera zuen.

Omenaldia eta lekukoa

Museko txapelak Doneztebe-ko Jon Mitxelenak eta Zubietako Urko Loiarrek irabazi zituzten. Bigarrenak, berriz, Eratsungo Emilio eta Jose Luis izan ziren. Lekukoa pasatu aitzinetik, ama herrikoa duen Isabel Elizalde kontseilariari, omenaldi tiki bat egin zioten. Gero, alkateak, Ezkurrako Jaione Zabalo zinegotziari 2019ko Malerreka Eguna antolatzeko lekukoa (Zubietako Migel Arregik urtero osatzen duena) pasatu zion.

Itaroako lehiaketa irabazi du Iciar Mikelperizenak

Iciar Mikelperizena margolariak irabazi du Uharteko Itaroa merkataritza guneak hirugarren urtez antolatutako *Decoprimavera* dekorazio lehiaketa *Quiérete* lanarekin. 500 euro jaso ditu ordainean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapeldun izan da musean Jaione Otxandorena

Sunbillako Jaione Otxandorena Andiarenak eta Gelbentzuko Timoteo Etxeberria Goñik irabazi dute Burlatako ostatuaren arteko seigarren mus txapelketa. Ez dute nolanhiko saria lortu: bidaia aukeran, Jamaikara edo Norvegiako fiordoetara eta bi urdaiazpiko iberiko.

228 bikote hasi ziren txapelketan urtarrean eta horietatik 64 sailkatu ziren azken faserako. Iaz, Espainiako mus txapelketara aurkeztu ziren



DIARIO NOTICIAS

eta aurten, ekainaren 23an jokatuko den Nafarroako mus txapelketaren finalerako sailkatuak daude.



ESKOLAK UTZITAKOIA

Ingelesa praktikatzen Irunberrin

Maiatzaren 28tik ekainaren 1a bitarte eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak beraien ingeles irakaslea den Julenekin Irunberrin egon ziren English Week programarekin ingelesa praktikatzen. Goiz partean ingeleseko klaseak eta arratsalde partean hainbat ekintza egin zituzten. Ederki pasa zuten.

Futbol Taldearen egun handia larunbat honetan

Egitarau zabala prestatu dute aurtengo denboraldia behar bezala agurtzeko

MARGA ERDOZAIN

214 neska-mutil ibili dira aurtengo Doneztebe Futbol Taldean, hamabi taldetan banaturik, eta hilabeteetako lanaren ondorengotik, ailegatu zaie mailetak, botak, kamisetak... ongi garbituta, heldu den denboraldirako gordetzeko tenorea. Baina hori larunbat honetako ospakizunaren ondorengotik egingen dute.

Egitarau zabala prestatu dute larunbaterako: 10:00etan benjamin mailakoen eta ttikien partidak jokatu dituzte eta infantilentzat jokoak izanzen dira. 11:30ean triangularra jokatu dute herriko hiru talderen artean. Arratsaldean, berriz, 17:00etan, Santa Luzia plazan jolasak izanzen dira benjamin eta alebinentzat. Gero, merienda eskainiko dute. 19:30ean Santa Luziatik triki-

poteoa abiatuko da eta 21:30ean afaria egingen dute. *Photocall* ere paratuko dute eta eguna ongi borobiltzeko, Oharkabe taldearen eskutik dantzaldia izanzen da.

Igandean Familiaren Eguna

Asteburua borobiltzeko, Erreka Guraso Elkarteak antolatuta, Familiaren Eguna ospatuko dute igandean, ekainak 17. 13:30ean bazkaria egingen dute eskolan eta ondorengotik, haurrek batean eta bertzean gozatzeko aukera izanzen dute: apar bestaz gain, uretako zezena ere izanzen dute, baita *barredora* ere. Musika ere ez da faltako eta urdaiazpikoaren pisua asmatzen duenak hori bera eramaten du etxera.

Bazkarirako txartelak hartzeko epea ekainaren 8an akitu zen.

Igerilekua larunbatetik aitzinera zabalik

Ekainaren 16tik irailaren 9ra bitarte igerilekua martxan egonen da. Bono-txartelak dagoeneko kiroldegian eskuratzen ahal dira. Langilegoari dagokionez, aipatu behar da hiru sorosle ariko direla eta bertze hiru arduratuko direla ateaz, garbiketaz eta kiroldegiko kudeaketaz. Bertzalde, aitzineko bi urteetan bezala, aurtengo ere igerilekuko ostatua errenta hartu nahi duenak ekainaren 15era arteko aukera izanzen du. Baldintzak udal bulegoetan eta web orrian eskuratzen ahal dira.

Herrigune historikoko parte-hartze prozesua

Herrigune historikoko parte-hartze prozesu osagarriarekin segitzen du Udalak. Azken bi hilabeteotan jaso dituen ekarpenekin, herritarrei aurkezteko proposamenak prestatzen ari dira, udal arkitektuen laguntzaz. Agerraldi publiko hori besta aitzinetik egingen dute eta ondorengotik, herritarrek proposamenak egiteko epea izanzen dute. Hala akituko du Udalak prozesu osagarria hori eta behin behineko dokumentua egingen du. Udalbatzaren hasierako onspena lortzen bada, NAO n agitaratu dute.

Kultur eta kirol hitzordu ugari herriko besten atarian

M. ERDOZAIN

Asteburu honetako ekitaldiez gain, ondoko asteetan ere ez da aspertzeko tarterik izanen: ekainaren 18an Agorreta Musika Eskolakoek kontzertua eskainiko dute elizako plazan, 18:00etan. Ekainaren 22an, *Romeo eta Julieta* antzezlan

ospetsua egingen du Firin Farandula taldeak, 18:30ean zinemaren. Biharamunean, San Juan suak eta afari autogestionatua izanzen dira ikastetxeko jolastokian, 21:30ean. Ekainaren 24an, berriz, Erreka Kirol Elkarteak antolatutako XL. Herri Krosa egingen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Proiektua elkartasun ametsa bihurtuta

Mendaur Institututuko DBHko ikasle batzuek enpresa bat sortu eta aitzinera eramateko erronkari ederki erantzun diote. Poltsa enpresa bat sortuz, 250 poltsa egin eta salgai jarri dituzte eta bildutako dirua Adano elkarteari ematea erabaki dute. Bide batez, bertako ikasle bati lagundu nahi izan diote.



ERREKA ELKARTEA

Giro ederrean XII. Errekaren Eguna

Ekaineko lehenbiziko asteburuan, Erreka Kirol Elkartearen egun handia ospatu zuten. Bi egunez nabaritu zen herrian mugimendua, baina berrikuntza nagusia bizikleta ibilaldia izan zen. Horrez gain, eskubaloi partidak, judo erakustaldia, dantza saioa, afaria eta dantzaldia izan zituzten.

ITUREN

Haur, guraso eta irakasleek ikasturte bukaerako besta dute ekainaren 19an

A. MINDEGIA

Eskolako ikasleak, ikasturtearen azken txanpan, han eta hemen dabilta. Maiatzeko hondar astean Irunberrin izan ziren eta ekainaren 7an kazetari lanetan aritu ziren, Xorroxin irratan.

Hilaren 19an, asteartean, ikasturte bukaerako besta izanen dute. Goizean, eskolako ikasleek irakasleek antolatutako mahai jokoez eta bertzelako jolasez ez ezik, eskulanez gozatzeko tartea izanen dute. Ondotik, bazkarian bilduko dira. Lehendabiziko gaztetxoan



Margolanak egin zituzten iazko bestan.

txanda izanen da; eta gero, guraso eta irakasleek hartuko dute lekukoa. Arratsaldean Guraso Elkarrekin antolatutako ekitaldietan ibiltzeko aukera izanen dute.

Ibai Berregik aurten ere EHMEen parte hartu du

Ibai Berregik, aurten ere, Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartu du. 10:17:09 behar izan zituen 67 kilometroak egiteko eta 137. helmugaratu zen. Egindako denborarekin gustura dago herritarra.



Bestak iragartzen dituen kartel lehiaketarik ez dute eginen aurten

TTIPI-TTAPA

Herriko gazteak bestak antolatzen buru-belarri ari dira azken aldian. Ekainaren 5ean egin zuten bileran, erraterako, zenbait erabaki hartu zituzten. Aurten ez dute bestak iragartzen dituen kartel lehiaketarik eginen. Eta horren ordez ai-

tzineko urteetako lehiaketetan saritu ez zirenen artean aukeratzea erabaki dute.

Laster plazaratuko dituzte lanak; eta herritarrek beraien botoa emateko zenbait egunez izanen dira ikusgai. Ekain hondarrean jakinaraziko dute irabazlea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Altsasuko gazteen atxilotzea salatuz

Altsasukoak aske! Muntai polizialik ez! lelopean elkarretaratzea egin zuten ekainaren 5ean, ilunabarrean, herriko plazan. Azken atxilotetak salatzeke eta gazteei elkartasuna adierazteke herriko eta inguruko jende andana bildu zen.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokiak
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Dekorazio proiektu integralak

San Juan bezperan afaria izanen dute plazan

Bezperan, herriko festak antolatzeko, gazteek bilera antolatu dute, 22:00etan, herriko plazan

FERMIN ETXEKOLONEA

Urteroko hitzordua ez du hutsik izanen aurten. Haur, gazte eta gurasoak plazan bilduko dira San Juan bezperan, ekainaren 23an. Suak aitzakiatzat hartuz egin ohi duten afaria antolatzen hasiak dira dagoeneko. Afalondoan suak piztuko dituzte. Haurrentzat lehendabizi eta helduentzat gauerdian. Suen iragarle gisa ezkilak ere joko dituzte. Giro ederra izanen dute.

Ostiralean bilera

Herriko festen harira, ekainaren 22an, ostiralean, 22:00etan, bilera irekia antolatu dute herriko gazteek. Plazan izanen dute hitzordua. Besteak beste, estalpeko txanda eta kudeaketa, pala txapelketaren antolaketa eta gazte bazkariari buruzko kontuak izanen dituzte hizpide. Horiek lotzen dituztenean bestelako ekarpenak egiteko aukera ere eskainiko dute.



Euria eginez gero, estalpean elkartuko dira. IZASKUN ZUBIALDE

Uholdeek zenbait etxetan kalteak eragin dituzte

Ekainaren 1eko euriteak uholdeak eragin zituen herrian. Tolatea etxe ondoko erreka gainezka egitearen ondorioz, zenbait etxetan ura sartu zen eta kalteak eragin zituen. Argazkian ikus daitekeen moduan Errekaldea karrikak erreka zirudien.



MAIDER LEIZEAGA



OLATZ BALEZTENA

V. gazta lehiaketa Bestaberri Egunean

Bestaberri Egunaren harira, gazta lehiaketaren bosgarren edizioa egin dute herrian. Zazpi gaztetatik Elizain etxeko Lurdes Elizalde jaso zuen lehendabiziko saria eta Idiarteko Migel Santestebanek bigarrena. Hauspolarieken eskutik dantzarako tartea izan zuten herrian.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Ohe estalki kolekzio anitza

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

MALERREKA

Urrotz-Hiriarekin senidetuko da Urroz larunbatean

Izen bera duten Nafarroako bi herrien arteko topaketa egingen dute eta hogeitaz gazte etortzekoak dira Iruñerrietik

JAIONE ARIZTEGI

Nafarroan bi Urroz daudela herrian ttikitatik dakigun zerbait da. Gehienek seguraski ez dugu bertze herria ezagutuko baina jendeak biak nahasi izanagatik entzutea badugu. Horren harira, senidetze besta antolatu da eta 20 gazteko talde bat etortzekoa da gurea. Goizean, gosalduta ondok

egunari hasiera emateko, herriko haurrakanta bat dantzatuko dute. Gero, bi herrietako gazteen artean herrikiroletako desafioa egingen dute eta, irabazlea edozein suertatzen dela ere, elkarrekin bazkalduko dute plazan. Arratsaldean hasita Hauspolariak arituko dira giroa alaitzen, bakoitzak nahi duen arte.

Ikasturtea akitzeko Mendaur eta San Juan Xarrera aterako dira Solaslagunak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 2an ospatutako Mintza Egunaren ondok, ikasturtea akitzeko Mendaur eta San Juan Xarrera menditeraldia antolatu du Solaslagunak ekainaren 17rako.

Igandearen 10:00etan Arantzako herri sarreran dagoen aparkalekuan elkartuko dira. Bertan, Iruñerriko Mintzakide, Hondarribiko Mintzlagunak, Mintzakide mendi taldea eta Baztan, Malerreka eta Bortziritako Solaslagunak elkartuko dira. Itzulia 5 ordu inguru-

ko ibilbidea izanen da eta 800 metroko malda izanen du. Gailurrean hamaiketako egin eta Arantzara bueltatuko dira. Azkenik, San Juan Xar bisitatu dute eta bertako erritua egiteko aukera ere izanen dute.

Hamaiketako eta norberaren oihalzati bat eraman behar da. Izena emateko, norbere herriko dinamizatzailearekin jarri behar da harremanetan.

Bertzeak bezalaxe, hau ere saio irekia izanen da eta baldintza bakarra euskaraz bizitzea da.



JAIONE ARIZTEGI

Urrozko dantzariak Malerreka Egunean

Maiatzaren azken larunbatean ospatu zen Malerreka Eguna, Sunbillara, joan ziren herriko dantzariak. Haurren taldeak eta helduenak, bakoitzak dantza bana eskaini zuten. Urrozko plazatik ateratzen ziren lehen aldia izan zen, baina seguru hurrengo urtean ere ez dutela hutsik egingen.



JAIONE ARIZTEGI

Malerreka Kantuz egin dute Urrozen

Malerreka Kantuz Urrozen egin zuten ekainaren 2an, eguraldi bikaina lagun zutela.

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

BORDALARREA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Gure Haragia
Nuestra Carne

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

San Juan festak asteburuko hiru egunez izanen dira

Larunbatean bertsolariak eta sua izanen dira protagonista eta igandean aizkora apustua eta patata tortilla lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Udako lehendabiziko asteburuan besta usaina hedatuko da herrian. Haur, gazte eta helduek ez dute etxean gelditzeko aitzakiarik.

Ostirala, ekainak 22

09:30ean argisoinuak txistulariekin. Goizean umeendako jokoak. 15:30etik 20:30era umeendako parkea (jumping, carrak, gaztelu haizatuak). 20:00 txupinazoa eta ohiturako zopak Herriko Ostatuan. Gauetz dantzaldia Txingudi Deejaysen eskutik.

Larunbata, ekainak 23

09:30 argisoinuak txistulariekin. 11:00etan herriko mus txapelketa. 14:00etan herribazkaria, bertsolariekin. Bertsolariak: Muñoa eta Lizarralde. Arratsalde bertso-pilota. Herriko gazteen arteko pilota partidak bertsolariekin alaituak. 22:00etan San Juan suak. Arratsalde eta gauetz dantzaldiak Basajaun taldearekin.

Igandea, ekainak 24

09:30etik aurrera txistulariek alaituko dute herria. 11:00etan Meza Nagusia, San Juan he-



Igandeko hondar egunean patata tortilla lehiaketa izanen dute. ARTXIBOKO ARGAZKIA

rriko patriaren ohorez. Ondotik, Udalak eskainitako mokadutxoak, Herriko Ostatuan. 13:00etan aizkora apustua Ruben Saralegi eta Jon Rekondoren artean. 18:00etan herriko gaztetxoaren arteko herri-kirolak izanen dira plazan. 19:30 Puro Relajo mariatxi taldearen saioa.

21:00 Patata tortilla lehiaketa izanen da. Ondoren, tortillak janen dira eta Udalak txistorra, gazta eta edariak ere eskainiko ditu. Bien bitartean, Oihana-Oihana trikitilariak alaituko dute giroa. Hondarrean, eta festari bukaera emateko, su artifizialak izanen dira ikusgai.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€etik aurrera
Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



*Aukera paregabean Donezteben
etxe berria erosteko*



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Heldu den urteko aldaketak mahairatu ditu elkarteak

Urtero bezala, elkarteko kideek hamalau eguneko egonaldia egin dute Benidormen

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 40 lagun Benidormen izan dira maiatzean. Bi hoteletan izan dira, eta eguraldia lagun, giro ederra izan dute. Halere, zuzendaritza batzordeak, urtero ostatu hartzeko dituzten arazoak tarteko, heldu den urtean aldaketak egitea proposatu du.

Izan ere, batetik, hotelek plaza gutti eskaintzen dituzte; eta bertetik, dirua aurreratzea eskatzen diete. Aldaketak aurreproiektu batean bildurik, ordezkariak helarazi dizkie. Bertzeak bertze, maiatzean

Gandiara joateko aukera bildu dute (urrian, aldiz, Benidormen izanen dira). Elkarteko kide batzuek beraien desadostasuna adierazi dute, eta horiek ere aintzat hartuko dituzte. Momentuz, Gandiara joateko joera duten bertze erretiratu elkarte batzuekin solastatu dira. Haien esperientziak positiboak izan direla nabarmendu nahi izan dute. Era berean, prezio aldetik, Gandia merkeagoa dela jakinarazi dute.

Azken erabakia esperientziaren eta prezioaren esku utziko dutela jakinarazi dute.



Elkarteko 40 lagun Benidormen izan dira. FERNANDO ETXEBERRIA

Bigarren seihilekoan 25 ikastaro eskainiko dituzte

FERNANDO ETXEBERRIA

Buletinean bildu dute informazio guztia. Guztira hogeita bost ikastaro eskainiko dituzte. Hemezortzik %50eko beherapena izanen dute eta bertze zazpi, Gobernuaren eta Caixabanken laguntzari esker, doan izanen dira. Abuztuaren

31 bitarte eman daiteke izena. Elkarteak pilates, yoga, gimnasia, *aquagym*, luzaketak, *spinning*... saioak eskaintzeko Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako kiroldegiekin hitzarmena egin du. Horiek guztiek %50eko deskontua izanen dute aurtan.



FERNANDO ETXEBERRIA

Mendi itzuliaren ondotik bazkari girotua

Leitzako mendi itzuliaren ondotik egindako bazkaria ezustez josia izan zen. Batetik, soldaduska elkarrekin egin zuten lau lagun, 40 urteren ondotik, elkartzeko bide eman zuten; eta bertetik, Juan saxofonistak (Jatorreko musikari izanak) eta Tomasek akordeoi-jotzaileak emanaldia eskaini zuten.

Mediterraneoko itsas-bidaiarako aste honetan izena eman dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Aurtengo bidaien artean interes handiena eragin duena irailaren 17tik 24ra bitarte egitea aurreikusi duten Mediterraneoko itsas-bidaia izan da. Guztira 52 plaza eskaini dituzte.



Astebeteko itsas-bidaia egingen dute.

Izen-ematea

Mediterraneoko itsas-bidaia irailaren 17tik 24ra bitarte egitea aurreikusi badute ere, aste honetan (hilaren 11n, 12an eta 13an) ematekoa zuten izena. Izan ere, batetik, Eroski bidaiak agentziak plazak gorde nahi ditu; eta bertetik, pasaporte beharko dutenez, guztia lotzeko tenerez hasteko asmoa dute.

Bartzelonatik abiatu eta Napoles, Civitavechia, Florentzia, Pisa, Livorno, Niza eta Seten barna ibili ondotik, hasierako

tokian bukatuko dute itzulia. Geldialdi guztiak Europako hirietan egingen badituzte ere, nazioarteko uretan barna ibiliko direnez, pasaportea behar izanen dute.

Bertze bidaiak

Bigarren seihilekoan, Teruel, Albarracín eta Cuenca, Kanaria Handia, Lizarra eta Lodosa, Gesaltza Añana, Gasteiz eta Zumarraga ere ezagutuko dituzte.

ARIZKUN GO BESTAK

Ekainaren
21etik 25erd!



Jon IRIARTE
Arizkungo gaztea

«Bestetan
arratsaldeak girotzeko
gautxorion ahalegina
behar dugu»

Herriko bestez gozatu ahal izateko lan handia egin behar izaten dute Arizkungo gazteek. Antolaketa-lan nagusiak «urtez urte aldatzen diren lau damunagusien esku» uzten badira ere, generalean, «handik eta hemendik egiten diren ekarpenez» osatzen dute egitaraua. Aurtengoan ez dira guti Jon Iriarteren egitekoak, bertze hiru lagunekin batera, «Sanjuanak behar bezala pasatzeko adi egon eta behar denean lagunduz» ibili beharko du.

Lana eta besta uztartuz

Lanak lan eta ardurak ardura, bestak «gogo aunitzekin» bizi ditu Iriartek. Zopa jatea, suak, Arizkun Rock, zikiroa... herrian urtean behin izaten direnez, «egunei ahal bezainbertzeko etekina ateratzen» saiatzen da. Berriki arte «egunik gogokoena zopa jate eguna izan da» eta «suak saltatzea arizkundarrok galdu ezin dugun hitzordua da». Baina azken urteetan Arizkun Rock jaialdiak hartu duen «indarra» tarteko, ez luke bat aukeratzen jakinen. Kontzertuak 2006tik antolatzen badira ere, Arizkun

Rock izenez laugarren urtea dute eta «urtetik urtera jende gehiago bertaraten da, joan den urtean plaza gainezka zegoen, inoiz ez bezala». Hitz guttitan «herriaren lan gogorrez eta batez ere gazteen izerdiz aitzinera ateratzen dugun jaialdia da, musika onaz inguruko jendearekin gozatzeko aitzakia bikaina».

Arizkungo beste «egun batzuetan arratsaldeak girotzea falta zaiela» uste badu ere, «dena behar bezala lotzea eta ekitaldi guztiak arrakastatsuak izatea ez da dirudien bezain aise lortzen». Hori horrela, Iriartek «gaueko musika eta giroa» nabarmentzen dela uste du: «jende gehiago animatzen da eta musika lagun, giroa ederra izaten da». Eguneko giroari bultzadatxoa emateko eta gaueko martxari eusteko gonbidapena egin nahi izan du arizkundar gazteak: «udari bestan hastera bezalakorik ez dagoelako, San Juanetan egin kuku eta Sanpedrotan ez gelditu mutu».



**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**

Baserritarren zerbitzurat

Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN



Dutaria baseria • ARIZKUN • 616 756 359

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



URTXULUTEGI
ZURGINDEGIA

ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak

Zurgin lanak orokorrean
PVC eta ALUMINIOA



Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es

ordoki erretegia
asador

Ordoki industrialdea | ARIZKUN
T. 948 45 31 65 - 608 53 88 61
asador.ordoki@gmail.com
www.asadorordoki.es

ONGI PASA BESTAK



Erretegia | Taberna | Likoreak | Eramateko janaria

azkarate

IKUZTEGIA LAVANDERIA INDUSTRIAL

Ongi pasa bestak!

Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 209

Ongi pasa bestak!!!



restaurante · jatetxea
BIXTA-EDER

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA

948 453 358 · 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
bixtaeder@hotmail.com
www.bixtaeder.es



ongi pasa
bestak!

TASKA

DOLAETXEA

T. 948 453 002 | ARIZKUN

FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.

BURDINA FORJATUAN
MOTA GUZTIETAKO LANAK.

Arizkun-Baztan · 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es



EGITARRAUA

EKAINAK 21, ortzeguna

12:00 Diana, txupinazoa eta gazteen luntxa. **13:00** Txopoa goratzea. **14:00** Gazteen bazkaria frontoian. **18:00** Ginkana. **20:30** Mutildantzak. **21:30** Baztan zopak, Beñat musikariak alaiturik. **Ondotik**, besta!



EKAINAK 22, ortziralea

10:00 Diana. **14:00** Gazteen bazkaria. **17:00** Bertso poteoa: Ander Lizarralde eta Unai Muñoarekin. **17:30** Herriko haurren trikitixa kalejira. **23:00** Arizkun Rock: Sofokaos, Kaotiko eta Tirri & Tery. *Ogitartekoak salgai paratuko dituzte.

EKAINAK 23, larunbata

10:00 Diana. **10:30** Enriques Party egun osoan. **14:00** Haurren bazkaria. **17:00** Zaldi ikuskizuna Ordokin. **18:00** Txokolatada. **18:30** Erraldoiekin itzulia, herrian barna. **20:30** Dantzaldia Laiotz taldearekin. **Ilunabarrean** su artifizialak, eta ondotik gaita eta mutil-dantzak. **00:00** Dantzaldia Laiotz taldearen eskutik. **04:00** DJ Tirri & Tery. *Ogitartekoak salgai paratuko dituzte.

EKAINAK 24, igandea

10:00 Diana. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Mutil-dantzak. **18:00** Baztango dantzariak. **19:30** Txamukos mariatxiak. **21:30** Gaita ta mutil-dantzak. **00:00** Sozi Party: 80's returns.



EKAINAK 25, astelehena

10:00 Dianak. **12:00** Mus ifezture. **14:00** Zikiro jatea Fernando eta Beñatek alaiturik. **20:00** Xingar jatea. **00:00** Txopo botatzea eta gaixoa Ni.



Oharra: Txartelak ekainaren 19a artio egonen dira salgai. Hortik aitzinera zopak 25€ eta zikiro jatea 30€ ordaindu beharko dira

ARGAZKIAK: valledebaztan.com
arizkunrock.blogspot.com

ERRATZUko BESTAK

Ekainaren
28tik
uztailaren
1era



EKAINAK 28, ortzeguna

10:30 Haur jokoak eta puzgarriak. **12:00** Txupinazoa eta ezkil jotzea. Ondotik, pintxo potea herriko ostatueta barna. **14:00** Gazte bazkaria Izpegin (apuntatzeko Zubi Punta ostatuan). **17:00** Izpegiko IX. Igoera. Bertan, txokolatada eta sari banaketa. **20:30** Presoen aldeko elkarretaratzea. **21:00** Baztan zopa herrikoiak plazan (txartelak salgai herriko ostatueta). **23:30** Dantzaldia Fidel akordiolariaren eskutik.

EKAINAK 29, ortziralea

10:00 Argisoinuak. **11:00** Meza. Ondotik mutil-dantzak, haurren dantza saioa eta luntxa plazan. **17:00** kuadrillen arteko II. desafioa, Baztan Treken eskutik. **19:00** Txamukos mariatxiak plazan. **20:30** Mutil-dantzak, gaiteroak eta larrain-dantza. **21:30** Gazte afaria Kastonea ostatuan. **23:30** Kontzertuak plazan: Etsaiakeroak, Dama eta Modus.



EKAINAK 30, larunbata

10:00 Argi soinuak. **11:30** Asier Kidam Magoa Erratzuko frontoian. **12:30** Erratzuko haurren V. frontenis txapelketako finalak. **14:00** Bazkari herrikoia kanpinoko ostatuan. **17:30** Pilota partidak. Master Cup Txapelketako finalistak: Olatz Arrizabalaga-Patri Espinar vs Eneritz Arrieta-Leire Etxaniz. Xala-Berjera vs Aritz Lasa-Mikel Beroiz. Ondotik, Emaztekien Frontenis Txapelketako finalak. **19:30** Dantzaldia plazan Gabenara taldearekin. **20:30** Mutil-dantzak, gaita eta larrain-dantza. **23:30** Dantzaldia plazan Gabenara taldearekin.

UZTAILAK 1, igandea

10:00 Argisoinuak, herriko trikitilari eta pandero-joleekin. **11:00** Pilota partidak Gorostapolon. Ondotik zintzur bustitzea. **14:00** Zikiro jatea plazan, Hauspolariet taldearen eskutik. **20:30** Mutil-dantzak, gaita eta Larraindantza. **22:00** Dantzaldia Iparlan Frantxioren eskutik. **21:00** Kontzertua Zubi Puntan. **01:00** Ziztor & Karton plazan.



ZUBI TUBUS
PUNTA ATUUA
ERRATZU USTARRA

KASTONEA
LANDETXEA
OSTATU-JATETXEA
Ongi pasa bestak!
31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ALTXUKO
janaridenda **DENDA**
EGUNEROKO EROSKETA. ETXETIK HURBIL
ONGI PASA BESTAK
948 453 471 ERRATZU

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com
Koskontako bidea, 7-1. I 31770 LESAKA (Nafarroa)

SERRERIA ALEMAN S.L
Teilaturako estruktura
Tarimak · KVH
Laminatuak · Egur trinkoa
Tratamenduak
Frantziako errep. 2-A ERRATZU
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com

ALBANTZENEA
Santi Dendarrieta
OSTATUA-DENDA
Ongi pasa herriko bestak!
Albantzenea etxea, ERRATZU · Tel: 948 453 112

BAZTANGOIZA
TALLERRA
Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa,
mantentze-lanak, mekanika,
elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuo kotxeen salmenta.
Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847 | baztangoiza@yahoo.es

Enkarguak hartzen dira



BENI
arraindegia

K. Nagusia 2 - DONEZTEBE
T. 948 450 589

ongi pasa bestak!



Ongi pasa bestak!

Belarra jatetxea



Amezti zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

ongi pasa bestak!

Inzakardi
Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal Inzakardi, 10
m. 630 511 488 DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Sampi Aragón



TALLER ESPECIALIZADO SEAT VW Audi

ONGI PASA BESTAK

Sampi Aragón S.L.

MARKA HAUETAN ESPEZIALISTAK
Mekanika · Elektrizitatea · Txapa · Pintura

Audi SEAT VW

T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

ONGI PASA BESTAK!

Angie
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English Exam Preparation Centre

Cambridge English Teacher Member



Cambridge English Exam Preparation Centre
founded under 517 (December 2007)

This centre is fully affiliated with the
Angie English Academy

Angie English Academy is a member of the world's leading group of qualifications for business in English.

8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

2013az geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin. Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 beheha · 31740 DONEZTEBE

DONEZTEBE^{KO} BESTAK

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra

EGITARUA



Argazkia: Alicia de CASTILLO

EKAINAK 28, ortzeguna

18:30 Bezperak elizan Mendi abesbatzaren eskutik. **20:00** Txupinazoa. Ondotik Doneztebeko txistulariak eta Elutxa txaranga karrikaz karrika. Herriko elkarte eta ostatuetan zopak. **00:30** Dantzaldia Gabenara taldearen eskutik.

EKAINAK 29, ortzirelea

09:00 Diana gaiteroekin eta txarangarekin. **11:00** Meza Nagusia, 'Agur Doneztebe', Trapatan eta bandera dantza. Goizean zehar Elutxa txaranga eta gaiteroak ibiliko dira herritik. **12:00** Buruhaundiak. **13:30** Luntxa udaletxe azpian. **18:00** Bertso saioa Santa Luzia plazan: Aitor Sarriegi, Agin Laburu eta Amaia Agirre. Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo. **20:00-21:45** Dantzaldia Alaiki musika taldearen eskutik. Ondotik Joaldunak herriari buelta emanen diote. **22:15** Erreka Dantza Taldearen ikuskizuna Bear Zanan. **00:30** Dantzaldia Alaiki musika taldearen eskutik.



Argazkia: ONDIKOL

EKAINAK 30, larunbata

09:00 Diana aurorak eta gaiteroekin. **10:00** Lore eskaintza San Pedrori elizako plazan. **10:30** Mus txapelketa eliz atarian. **11:00** Udal tikiari ongi etorria eta txupinazoa. **11:30** Kalejira eta dantzari tikiaren ikuskizuna Bear Zanan. Ondotik dantzariantzat luntxa. **12:00** Buruhaundiak. **14:00** Udal tikiaria aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria. **15:30** Doneztebeko II. Motorshow Slalom. **16:00** Haurrendako Jokulandia Bear Zanan. Udal tikiari emanen dio hasiera. Denbora ona eginez gero, bukaeran apar-besta. Ondotik Udal tikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **18:00** Aurorak eta Elutxa txarangarekin poteo alaia. **20:00-21:45** Dantzaldia Oharkabe taldearen eskutik. **22:00** Zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30** Dantzaldia Oharkabe taldearen eskutik.



APEZTEGUIA

margoak eta barnizak hidrogarbigailuak
silikonak **LORATEGIA** lanerako jantziak
esku erreminta abeltzaintza **BURDINDEGIA**
baratzea konpresoreak ERREMINTA ELEKTRIKOA

Apezteguia Berria
ferretería - burdindegia


Leitzako Errepidea - Doneztebe
T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

*Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



apezteguiaelizalde
arquitectura y eficiencia energética
arkitektura eta eraginkortasun energetikoa



Mendiburu

aziendak · tratantea

Ongi pasa herriko bestak!



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI

Loteria primitiva
Kinielak
Pelukeroa



T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8
DONEZTEBE

ONGI PASA BESTAK



talleres **EDERKI** tailerra



Leitza errepidea z/g
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoan moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Julia

Gozotegia · Kafetegia

Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471



TERRAZA · WI-FI gunea

Ogia, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak... ENKARGUAK HARTZEN DIRA



ELIZAGA MUGIKA SL



conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!



Etxebizitzen eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

ONGI PASA BESTAK!



Miguelena

SUKALDEAK KOMUNAK

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE





UZTAILAK 1, igandea

09:00 Diana Elutxa txarangarekin. **11:30** Herri-kirolak Bear Zanan, Tragoz-trago eta Zurruteruk kuadrilen artean. **12:30** Voces Navarras jotak Santa Luzia plazan. **14:00** Gazte bazkaria (zikiro jatea) Intzakardin. Ondotik Sakutu elektrotxarangarekin poteoa. **18:00** Girotu plaza haur berbena Santa Luzia plazan. **20:00** Los Tenampas hirukotea (musika mexikarra) Santa Luzia plazan. **22:00** Zezensuzkoa Bear Zanan. **00:00** Tirri & Tery.



UZTAILAK 2, astelehena

09:00 Diana gaiteroekin. **11:00** Dantza erakustaldia Doneztebeko Rebeca Dantza Akademiako ikasleek eskainia Santa Luzia plazan. **14:00** Herri bazkaria Intzakardin: Kaldereteak. Goizean zehar sukaldatu zuen kalderetea lagunartean eta giro ederrean musikaz alaitua.
* Ardoa, sagardoa, ura, ogia eta kafea Udalaren kontu.
Bazkal ondotik erreka igoera. Denak uretara!!
19:00 Guateke taldea Santa Luzia plazan.
22:00 Zezensuzkoa Bear Zanan. Ondotik Elutxa txaranga karrikaz karrika eta gero 'Gaixoa ni' Santa Luzia plazan.



IBARBURU
GASOLIOA ETXERA
KALEFAKZIOA · NEKAZARITZA · AUTOMOBILGINTZA
T. 610 258 595
Vicente Arocena Andueza
Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

MAKINAK ETA ZERBITZUEN ALOKAILUA
J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak
Ongi pasa bestak!
DONEZTEBE
Leitza bidea, 72 · DONEZTEBE · T. 948 451 793
T. 659 702 694 · jvjubera@gmail.com

ordua eskatu
MAITE ileapaindegia
Solarium-a
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
Mourges Etorbidea, 4
© 948 451 780 - DONEZTEBE

MENDIUR PENTSUK
Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
DISTRIBUIDOR DE
Rex Agroveco
Pentsuak · Ongarriak · Haziak
Oilasko eta oilandak astero
ortzegunetan · Kaiolak
ORAIN PENTSU EKOLOGIKOAK!
Mourges, 20 · 31740 DONEZTEBE
Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 95

Ongi pasa bestak!
PATXI ZAMORANO
BARNIZADURAK | LAKATUAK
KANPOALDEKO UR-BERNIZAK
BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA
AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK,
ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...
Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com

zrb.net
informatika
ONGI PASA BESTAK!
Santa Luzia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

TAXI DANI
9 Plaza | 24 orduko zerbitzua
BESTETAKO ZERBITZUAK
Ongi pasa bestak!

DONEZTEBE
637 24 89 01

Olatz
Zapata-denda
ONGI PASA BESTAK!!
Olatz Zapata-denda
T. 948 450 339
Elizagibela, 5 - behea | DONEZTEBE

EROSKI city
 ENKARGUAK HARTZEN DIRA
 Ongi pasa bestak!!
 T. 948 456 152
 Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE
 JANARI-DENDA HARATEGIA FRUTAK



goldea *ongi pasa bestak!*
 tailerra s.l.l.
 tel./fax: 948 450 060
 e-mail: goldeataillerra@gmail.com
 Pol. Industrial Aparan. 5
 31740 Doneztebe (Nafarroa)



LULE
 Kafetegia
 ENKARGUAK HARTZEN DITUGU | ETXeko GOZOAK



Leitzako errep., 6 - behea DONEZTEBE
 619 913 375 • CafeteriaLULE

Mailposta *publizitate banaketak*

ongi pasa bestak!!

Inprimategia **Publizitate banaketak**



Zure inprenta eta publizitate banaketarako enpresa

Arribilagako bidea, 55
 31793 NARBARTE
 686 747 713
 648 847 167
 www.mailpostabuzoneos.com
 amaia@mailpostabuzoneos.com

Idoia ZAMORANO Doneztebeko gaztea

Musika eta dantza zaletasun dituzten Doneztebeko gazteak dira Maialen eta Idoia Zamorano ahizpak. Herriko bestetan biak uztartzeko aukera izaten dute, batzuetan karriketan gatza eta piperra jartzen ibiltzen dira; bertzeetan, berriz, gatza eta piperra dastatzen.

Han eta hemen, dena gozamen

Txistua jotzen, dantzan, herri bazkariko giroaz gozaten... han eta hemen ikusiko ditugu aurten ere: «lantokian besta eskatu eta baiezkoa erantzunez gero, bortz egun horietan ez dago etxean gelditzeko aitzakiarik!». Bereziki, San Pedro Eguneko ekitaldien bueltan sortzen den giroa dute gustuko: «goizetik patrioiaren omenezko mezan jende aunitz biltzen da eta ondotik, Trapatan eta bandera dantzek ikusmira handia eragiten dute». Eguerdiko bazkaria «familia elkartzeko aitzakia polita da» eta arratsaldean, Erreka dantza taldearen emanaldi berezia ikustera «adin guztietakoak bertaraten dira».

Momentu guztiak beraien xarma badute ere, Zamorano ahizpentzat azken eguneko herri bazkaria eta Errekak, San Pedro Egunerako, prestatzen duen ikuskizun berezia «hutsik egin gabekoak dira». Dantza munduan «lau urte genituela hasi ginen eta urte

«Erraldoiei bultzadatxo bat ematea polita litzateke»



aunitzez San Pedro Eguneko ekitaldian parte hartu dugu». Duela bi urte dantza taldeko kide izateari utzi bazieten ere, urte horiek guztiak atzetik dagoen lana, barrutik bizi duten ilusioa eta jartzen duten gogo hurbiletik ezagutzeko bide eman zieten: «dantzarako grina ez zaigu itzali, orain ikusle bezala bizi dugu».

Etzetik plazara

Era berean, hondar eguneko herri bazkarian, «haurrak, gazteak eta helduak mahai-inguruan biltzeak guztiok momentu beraz gozatzeko bide ematen duenez gero, ekitaldia bestak borobiltzeko modukoa da». Areago, erreka igoeraren bidez «bukaera berezia ematen diegu». Normalean, arratsaldean hasitakoari gauz ematen diete segida. Aurten, ordea, larunbat goizean ez dute piper eginen: «gaita eta atabala ikastaroan ikasitakoa plazaratzeko plazerra izanzen dugu». Azaroan ekin zieten ikastaroari eta orduz geroztik, Tomas eta Shanti Diaz aita-seeen eskutik, eta Joseba Indabereren laguntzaz, hainbat saio izan dituzte: «larunbat goizetan, ordu eta erdiz, hogeita berrogei urte bitarteko hamabortz bat musikari biltzen gara». Beraien artean duten giroa «izugarria»

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!!



Juanotena Zurgina
Juantxo Juanotena
 639 855 120 | juanotenazurgina@gmail.com | Doneztebe



Maialen ZAMORANO Doneztebeko gaztea

banaketa: «haizeko instrumentua txistu-lariarentzat eta perkusio instrumentua bateria-jolearentzat behar zuen». Lehen emanaldia Pintxo Lehiaketan eman zuten, eta «urduitasuna agerikoa bazen ere, gustura gelditu ginen». Hamar pieza inguru jo zituzten «uste baino hobe atera zen, jendearengan harridura antzeman genuen eta akitu orduko hurrengo ekitaldia ailegatzeko desiotan ginen».

Aldaketa tikiak, erraldoietarako bide
Eguna ailegatzeko atarian, berri ere urduitasunak sumatzeko gogotsu daude zamoranotarrak. Aurtengo berrikuntzak «berrikuntza izate hutsagatik ez ezik, herritarrak izateagatik» haize freskoa ekarriko duela uste dute. Areago, gauza batek bertzea eskatzen duenez, hori «erraldoiei bultzadatto bat emateko baliatzea polita izan daitekeela» uste dute. Bien bitartean, aurtengoz gozatzeko prest daude ahizpak. Jantzi zuriak eta zapi gorria txukun-txukun dituzte, «eta ez ditugu berehalakoan kenduko».

Sanpedroak akitu eta sanferminetara joanen dira: «aita lesakarra da, bere iturritik edan dugu, beraz harena da sanferminak horrenbertze gustatzearen ardura» adierazi dute irriz.

dela eta «elkarrengandik aunitz ikas dezaketela» nabarmendu nahi izan dute. Gela barruan ikasitakoari etekina ateratzeko eta karrikak alaitzeko ideia «irakasleari bururatu zitzaion» eta bi ahizpen ustez «gure buruan sinisteko eta guregan konfiantza izateko» urrats garrantzitsua izan da.

Elkarren sustengu eta osagarri

Ikastaroan izen-emateko erabakia «elkarren arrimuan» eman zuten ahizpek «eta ez dugu damurik». Ez bata ez bertzeak oinarritzko jakintzarik gabe ekin zuten bidea: «instrumentu hauekin hutsetik hasi ginen». Edonola ere, ordurako ahizpetan gazteenak, Idoiak, bateria eta zaharrenak, Maialenek, txistua jotzen bazekitenez, «argi» zuten



Pitti
ONGI PASA BESTAKI!
ESKABAZIOAK

MINI ESKABAZIO
eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

T 616 513 491
TIF 948 451 389
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE
pittieskabazioak@hotmail.com

MALE REKA
KUSTOM

Arropa eta osagarri pertsonalizatuak

50 URTE
ZOOANS
Audi, VW, SEAT, etc.

Nagusia, 1 - Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

CTV
ALBAITARITZA ZENTRO TEKNIKOA

ONGI PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

ONGI PASA BESTAKI! 2018ko UDABERRIKO ESKAINTZAK

SOROPIL-EBAKITZEKOAK
149€tik hasita

Goza ezazu!

HIDROGARBITZAILEAK
139€tik hasita

SASI-MOZTEKOAK
99€tik hasita

ETORRI ZURE DENDA ESPEZIALISTARA

STIHL VIKING

BANATZAILEA
José Luis San Miguel
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711
www.joseluisanmiguel.com

ONGI PASA BESTAKI

Clinica Dental
IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoak • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713



Ongi pasa bestak!

Ameztiá, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271



Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443



**DONEZTEBEKO
BESTAK
2018**

ekainaren 28tik uztaillaren 2ra
**HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI,
ERRESPEZUZ BESTA EGIN!**



DONEZTEBEKO
UDALA



ERASO
SEXISTARIK
EZ!



Kimetz
Belardenda

info@kimetzbelardenda.com



lorea
nutrizio eta dietetika
elkartzeko kontzientzia

lorea@kimetzbelardenda.com

Ongi pasa bestak!

T. 948 451 473 | DONEZTEBE
www.kimetzbelardenda.com



**AMA
KONTXA**
GASOLINDEGIA

PARKING CLIENTES

**ONGI PASA
BESTAK!**



DESKARGATU DOAN **SMARTFUEL** APLIKAZIOA
Hartu gasolina eta ordaindu modu erraz, azkar eta erosoan



ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolia, B Gasolia, SP 95, Adblue) • TELEFONOA ETA FAXA • APARKALEKUA • KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
TABAKO SALMENTA • LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA • ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA



SUPERMERKATUKO PREZIOAK

HAY PIZZAS CALIENTES PARA LLEVAR



GASOLIOA ETXERA
ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
PREZIO LEHIAKORRA



Juan TELLETXEA Doneztebeko gaztea

«Nahi duenak
gozamenerako
aukera badu»

Urteen joan-etorrian, Juan Telletxe-ari bestetako ardurak aunitz aldatu zaizkio. Hamabi bat urte zituela, aizkoran hasi zen eta «hogei urtez ikuskizun batzutan, Nafarroako txapelketetan eta herriko bestetan» parte hartu izan du: «apustua pasatu arte bestarik ez egitea zen zailena, orduan egunez aprobetxatzen nuen».

Ardura bat utzi, bertzea hartu

Zinegotzia zenean, berriz, «egiteko gehiago izaten nituen, ekitaldiz ekitaldi ibili behar izaten nuen, gaur udalean daudenek egiten duten bezalatsu». Orain, antolaketa aldetiko ardurak guttituagatik, «aita izatearenak hartu ditut». Ardura aldatzeko bestak bizitzeko modua aldatzea eragin badio ere, gogoia bizi-bizi mantentzen du.

«Giro guztiak
probatzen ditut»

Guztia, ordea, ez da errotik aldatu. Mus txapelketa antolatzen «beti bota izan dut esku bat, eta azken urteetan nire gain hartu dut horren erantzukizuna». Bikoteak apuntatzen eta partiden zozketak egiten aritzen da: «20-25 bat bikote izaten gara, bezperako parrandaren arabera gazte gehiago edo guttiagok ematen dute izena. Azken urteetan bikote kopurua pixka bat goititu da». Antolaketa-lanak ez dute zama handiegirik Telletxearentzat: «nik ere badut muserako zaletasuna eta txapelketan jokatzeko dut... horregatik, arront gustura egiten dut». Familiako aita izateak ere ez dio giro guztiak probatzea galarazten: «egunez familiarekin eta gauren batean kuadrillarekin ateratzen naiz».

Bertso besta

Besta eta bertso giroa izugarri gustatzen zaio Juan Telletxeari eta batak bertzea dakarrela uste duenez, berriki helduen bertso eskolan ibili da doneztebarra: «aitzineko bi urtetan izena eman nuen eta ez zen talderik osatu; aurten lortu dugu». Igandero etxean ikusten genituen «Hitzetik hortzera saiokak dira zaletasun horren eragile, aizkoran bezala, aitaren zaletasuna neureganatu dut». Hamalau lagun bildu dira eta «giro bikaina» izan dugunez «heldu den urtean errepikatzeko asmoz» dago Juan Telletxea. Bien bitartean, ikasitakoa ez atzetzeko «Donezteben mahai inguruan kantatzeko ohiturarik ez dagoenez, Eratsunen aprobetxatu behar izaten dut». Baina Doneztebeko bestetan mahai inguruan ez izanagatik, «akaso barrako txokotik» entzunen ditugu Telletxearen bertsoak.

Egunetik gauera

Bestetan izaten dituen ardurak eta bestak bizitzeko modua ez ezik, bestak ere aunitz aldatu direla kontatu digu Telletxeak «urte aunitz pasa dira». Besta «haundiena egunekoa zen lehen; gauekoa da orain». Plaza giroak indarra galdu du, «ostatuak gailendu zaizkio». Eta ekitaldi batzuen «bakillak eta kukaña, erraterako» ordez eta bertze batzuk antolatzen dira. Baina, aldatzeko aldaketa, «nahi duenak gozamenerako aukera badu» nabarmendu nahi izan du.



Ford
Sampi Aragón S.L.
Orain zonaldeko Ford zerbitzu ofiziala
ONGI PASA BESTAK
T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

Doneztebe autoeskola
A1 - A - B - BTP - C1
C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
"35 orduko CAP ikastaroak"
BESTA ONAK PASA!
948 451 929
Leitzako errepidea 2 behea DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com

Mendaur Motor

AUTOEN KONPONKETA ETA SALMENTA
TXAPA ETA PINTURA

ONGI PASA BESTAK!
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T.948 450 333



Ekimenarekin bat egin duten merkataritza elkarteak, tartean eskualdekoak.

BEZik gabeko egunen kontra dira bertako merkataritza

Nafarroa osoko 570 denda bat egin dute ekimenarekin, tartean Baztan, Bortziriak eta Malerrekako elkartetakoek

TTIPI-TTAPA BAZTAN-BIDASOA
570 denda, bakoitzak bere zonaldeko elkarteak ordezkatuta, Denok Bat Merkataritza Federazioarekin elkarturik batu egin dira, ahots bakarra sortuz, Nafarroako operadore haundiek erabili ohi duten *BEZik gabeko egunak* praktikaren aurka egiteko; izan ere, haien ustez, horrelako kanpainak kontsumo engainagarririk eta oldarkorra sustatzen dute. Orokorrean kontsumitzaileak uste du BEZa altuenari dagokiola deskontua (ehuneko 21eko deskontua) eta hori ez da beti horrela iza-

ten, deskontua produktuaren BEZaren arabera da, gehienetan %21a baino tikiagoa.

Gezurreen oinarrituta
Merkatarien arabera, aunitzetan ikus ditzakegu horrelako kanpainak komunikabideetan, formatu bortizetan gainera. Kontsumitzaileari iristen zaion

EGUN HORIETAN HOBE DELA EZ EROSTEA ERRANEN DIETE BEZEROEI

mezua zergarik gabe erosten duela da: «operadore handiek Foru Ogasunari denok ordaintzen diogun Balio Erantsiaren gaineko Zerga marketing tresna bezala erabiltzen dute» diote. Era honetako ekintzak Nafarroako gizaratearen gehiengo batentzako ezkorrak direla uste dute bederatzi gertuko merkataritza elkartek eta Denok Bat Federazioak. Dokumentu hau sinatzen dutenek gertuko salmenta baten alde egiten dute egunero, euren Udal eta Mankomunitateei zergak ordainduz, eta «era honetan tokiko finantziatzaileak garrantzitsu bat suposatuz».

Denon artean gizarate zentzudun eta jasangarri bat garatu beharrean, kanpaina horien erruz gure bizilagunek *BEZik gabeko egunetan* erostea hobea dela uste dutela salatu dute, hots, «zergak ordaintzen ez ditugun egunetan, osasun edo hezkuntza laguntzen ez dugun egunetan, zerga paradisuetan tributatzea hobe den egunetan».

Arrazoi horiengatik Bortziriak, Malerrek, Baztan, Sakana, Tuter eta Iruñeko Errotxapea, Sanduzelai eta Txantrea auzoetako dendek ozen eta garbi adierazi nahi dute BEZik gabeko egunen kontra daudela eta hortaz, euren bezeroei jakinaraziko dietela BEZik gabeko egunetan, zerbitzu publikorik gabeko eta zergarik gabeko egunetan, hobe dela ez erostea.

Gizarte arloko erakundeei diruz laguntzeko bi deialdi Baztanen

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztanen gizarate arloko diren entitateei eta lankidetzako proiektuei diruz laguntzak emateko bi deialdi egin ditu Udalak. Bi deialdien kasuan ekainaren 18a arteko epea da proiektuak aurkezteko.

Horieta ere Baztanen esku hartu eta gizarteratzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarte bideratua da. Diru-laguntza honen helburua prebentzioaren, laguntza, aisiaren eta denbora librearen eta gizarteratzearen arloko lana eginez herritarren ongizatea bultzatuko duten programak sustatzea da.

Bigarren laguntza deialdia nazioarteko lankidetzarako proiektuendako da, garapen bidean diren herrialdeetako komunitateen ahalmen sozio-ekonomikoak garatzen laguntzeko eta oinarrituko beharriak asetzen eta tokiko giza baliabideak bultzatzen laguntzeko. Hurrei laguntza ematea lehenetsiko dute, baita muturreko pobrezia eta goseta desagerraztea ere; oinarrituko hezkuntza unibertsalerako eskubidea; genero berdintasuna eta emakumeek parte hartzeko eta erabakitzeko duten eskubidea; haurren hilkortasun tasa murriztea...

ARESO



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarrek bete dute erronka

Ekainaren 2an zortzi herritar abiatu ziren Leitzako plazatik erronka osatzeko asmotan. Baina giro sargoria, erorikoak... tarteko azkenean Leire, Arkaitz, Iker eta Txominek lortu zuten 67 kilometroko ibilbidea osatzea. Zorionak, ez duzue meritu makala!

Hirigintza planeko parte-hartze prozesua bertan behera

Hirigintza plana egiteko ardura duen enpresak ez ditu bete adostutako baldintzak eta, horregatik, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu bitarte hirigintza planeko parte hartze prozesua bertan behera uzteko erabakia hartu dute.

Banda zabala jartzeko lanak epe laburrean hasiko dituzte

Etorkizunean zuntz optikoa etxeetan jarri ahal izatea ahalbide-tuko du banda zabala herriraino ekartzeak. Lanak laster abiatuko dituzte. Horretarako egin beharrek lanek 32.000 euroko kostua dute eta %80a Nafarroako Gobernuak finantzatuko du.

ARANO



ENERITZ IRAOLA

Giro bikaina eskolen arteko topaketan

Arano, Areso, Ezkurra, Goizueta eta Leitzako eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak bildu ziren egun osoko pestan eta udaberriko eguraldi zoroak ez zion dirdirarik kendu egunari. Goizuetarrek izanen dute datorren urtean topaketak antolatze-ko ardura.

Zikero jatea eginen dute pestetako bazkarian

Herriko talde eta eragileetako ordezkari-ek pasa den maiatzaren 18an egin zuten bilkura. Pestak izan zituzten hizpide eta guztien artean aurten pestetako herri bazkarian zikero jatea egitea erabaki zuten. Horixe izango da aurtengo berrikuntzetako bat.

Jalki kultur taldea sortu eta helburuak zehaztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 1ean Aranon Jalki kultur elkarte-a izango denaren hazia erein zen. Elkarte-a sortzeko in-iziatiba izan zutenen artean deialdi irekia egin zen sortze prozesuan ahalik eta jende gehien parte har zezaten. Jai batzordearekin batera egin-dako bileran elkartearen ize-na, estatutuak eta lantaldea zehaztu zituzten. Aurrera begira parte hartzea zabal-tzea lehenestea adostu zuten. Herriko guraso, gaztetxo, emakumeen talde, baserri- eta Udalarekin saretzea da asmoa.

Horrela, elkartearen oinarri nagusiak, kultur arloko ekin-tzak bultzatzea, auzolana sus-tatu eta herriak dituen behar-rak identifikatu eta asetzen saiatzea izango dira. Jalki izena adostu zuten lehen bat-zar honetan. Aranon, jalki, haziak astintzen diren moduan, herria jalkitzen jarraitzea da kultur elkartearen asmo nagusia. Jada ekimen asko eka-ri dira mahai gainera eta hauek gutxinaka hasiko dira lantzen. Dagoeneko Guifinet sare-a Suro auzora iritsi da, eta epe ertai-nean, Surotik herri osora za-baltzeko asmotan dabil-tza. Bestetik, ekainaren 13tik hasita uztailaren 25era bitarte, asteazkene-ko, Maisuenean, 19:00etatik 21:00etara bu-ruhandiak egiteko tailerrak antolatu dituzte.

ZERALEKU

- ZERAMIKA
- PARKE LAMINATUA
- KOMUNeko ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK



ORAIN

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- SOFAK
- BARNE DEKORAZIOA

Etxearen 3 dimentsioko aurre diseinua egingo dizugu!!



URKO

ZERALEKU HOGAR

BEARZUN DETALL S.L. | Albiasu errep. ind. 31870 Lekunberri
948 504 486 | zeraleku@zeraleku.com | www.zeraleku.com

BEARZUN DETALL S.L. | Aralar kalea, 58 31870 Lekunberri
948 504 344 | cocinas@urkozeraleku.com | www.urkozeraleku.com



Lehen sektorearen ekarpena ezagutaraztea dute helburu. UTZITAKO ARGAZKIA

Larreen Eguna izanen dute larunbatean

Hilaren 23an, berriz, Jakoba Errekondorekin baratzeetan barna ibilaldia egingen dute

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean, Leitza Kontsumituz partaidetza prozesuan ekintza plana osatzeko bildutako ekarpenak honako helburuotara begira eraiki ziren: lehen sektorea eta bertako produktuak ikustaraztea; ekikadura burujabetzaren ikuspegitik hausnarketa egitea; eta bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzea. Lehen sektoreko lanak ikustarazteko ekimenen harira, Bertatik Bertara dinamika osatzen duten Leitza eta Aresoko Udalak, LeitzEKO Kontsumo taldeak, ekoizleak... Larreen Eguna antolatu dute. Antolatze-lanetan Mendibil Mendi Taldearen eta Alke Kultur Elkartearen laguntza izan dute.

Egun horren helburua, ekitaldi didaktikoen bidez, lehen sektoreak Leitza eta Areson urteetan egin duen eta gaur egun egiten duen ekarpen sozial eta kulturala balioetsi eta aitortzea eta paisaia eta lurraldea mantentzen egin duten lana ezagutaraztea da. Helburua asebetetzera bidean, egun osoko egitaraua antola-

tu dute. 09:00etan plazatik abiatu eta Telleri baserria bisitatuko dute. Bertan, besteak beste, ardiekin egiten duten lana ikusteko aukera izanen dute herritarrek. Ondoren, 12:30ean, Mukarrainen egingen dute geldialdia. Aziendak larreetan ikusteko ez ezik, mendibatzordeko kideen eskutik, larreen funtzionamenduz eta beste hainbat kontuz hitz egiteko tarte hartuko dute. Nahi duenak autoz bertaratzeko aukera izanen du. 13:30ean Kornietan bilduko dira. Leitza eta Aresoko ekoizleen produktuekin prestaturiko bazkaria (zopa, entsalada, zikiroa eta gaztanbera) dastatu bidenabar, egunari erreparasoa egiteko aukerarik ez dute galduko.

Hilaren 23an baratzeetan barna Hurrengo larunbatean, 23an, 11:00etan, Jakoba Errekondoren eskutik Herriko Baratzak, Herri Ondare ibilaldia izanen dute herrian. Herriko baratzeen bisibilizazioa eta aitortza egiteko helburuz, garaian garai-ko produktuen sustapenaz eta praktika onez hitz egiteko tarte izanen dute.

Udalak Plazaolako hesiak konpondu eta hiru ibilbide sortuko ditu

JM BARRIOLA

Udalak Plazaolako hesiak konpontzeko eta hiru mendi ibilbide sortzeko 70.000 euroko inbertsioa egingen du. Europako FEDER programatik 50.000 euroko laguntza jasoko du eta lanak uda ondoren hastea aurreikusitako dute.

Udalak hesien egoera ikusita, hainbat diru-laguntza deialdietan aurkezteko memoria eta aurrekontuak prestatu zituen. Hala, Cederna-Garalur elkartearen bitartez Europako FEDER programatik 50.000 euro jasoko ditu, gaur egun egoera txarrean dauden hesiak moldatzeko eta iraunkorrak jartzeko.

Era berean, hiru ibilbide erregistratu eta seinalizatuko ditu. Horrela bada, gaur egun Leitzalarrean dauden ibilbideak mantentzeaz gain, Iberoko



Hesiak moldatuko dituzte.

dorreraino doan ibilbide bat sortuko dute, mendizaleek ibilaldiaren ondoren, Erdi Aroko konplexu arkitektoniko horretara iritsi eta gozatzeko aukera izan dezaten. Bestalde, Sorogain, Kornieta eta Aritz-mendiko paisaiak Plazaolako trenbidearekin lotuko dituzten beste bi ibilbide ere osatzeko asmoa dute. Turismo arlorako jasotako diru-laguntzaz gain, Udalak 20.000 euro inguruko inbertsioa egingen du.

Ehoziri Topaketa Kultur Aroa borobiltzeko

Maiatzaren 4an abiatu zen Kultur Aroa ekainaren 17ko Ehoziri Topaketarekin bukatuko da. 11:00etatik 14:00etara bilduko dira plazan. Altsasu, Andoain, Ibarra, Iruñea, Tafalla, Logroño eta herrikoen artea 80 ehoziri inguru bilduko direla aurreikusitako dute.



Kultur Aroko azoka jendetsua.

Hondakin bereziak kudeatzen ikasteko formazioa herrian

Mendialdea Mankomunitateak eta NUPek elkarlanean, hondakin bereziak eta materia organikoa kudeatzen ikasteko hiru saioko ikastaroa antolatu dute. Ekainaren 14, 21 eta 28an dituzte saioak, 17:30etik 20:00etara. Ikastaroa jasotzen dutenek ziurtagiria jasoko dute.

Txupinazoa nork bota herritarrek erabakiko dute

Pesta Batzordeak txupinazoa botatzeko hautagaiak prestatu ditu: Villabonako talogileek, Gabriel Saralegik edo eskolako irakasle jubilatuek izanen dute ardura. Herritarrek izanen dute azken hitza. Horretarako hilaren 22an eta 23an bozka mahaiak jarriko dituzte.

Plazaola aldizkariko azal eta kartel lehiaketa martxan, ekainaren 22a bitarte

JM BARRIOLA

Abian da Plazaola aldizkariko azal eta kartel lehiaketa. Ekainaren 22a bitarte, Aurreran edo Maimur liburu-dendan aurkeztu behar dira lanak. Bozketa San Juan bezperan egingen dute. Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan, estilo eta teknika librean, aurkez ditzake. Gutxienez, A3 tamaina izan behar dute eta izengoiti bidez izendatuko dira. 16 urtetik beherakoen lanek "Plazaola-Leitzako aldizkaria-40.zenbakia"; eta 16tik gorakoek "Leitza 2018-Tibur-



Joan den urteko irabazlea.

tzio Donearen Pestak-40.zenbakia" testua behar dute idatzita.

Ekainaren 22tik aurrera plaza behin-betiko peatonalizatuko dute

TTIPI-TTAPA

Kotxeentzat pentsatutako herri batean oinezkoentzat espazio bat izateko asmoz, herriko plaza behin-betiko peatonalizatuko dute. Orain artean ostiraletik astelehen goizera bitarte ixten zuten eta ekainaren 22tik, heldu den ostiraletik, aurrera behin-betiko peatonalizatuko dute.

Erabakia hartu aurretik, Udala plaza inguruko bizilagun eta zerbitzuekin bildu da, sor daitezkeen berezitasun edo eragozpenak aztertu eta behar bezalako irtenbidea emateko.

Udala kontziente da, neurri hauek guztiak ezinbestean herritarren kontzientziarioekin batera joan behar direla. Peatonalizazioaren neurri honek herrian barneko kotxeen erabilera murriztuko lukeela ere uste du Udalak; herritarrek dagozkien aparkalekueetan aparkatuko dutela autoa eta oinezko joerak gora egingen duela. Gainera, neurriak herritarren ongizatean eraginen duela dio Udalak: "plaza biziberrituko du eta, oinezkoek espazio publiko bat irabaziko dute".

Gorritzaran auzoko pesta ekainaren 17an izanen da aurten

JM BARRIOLA

Gorritzaran auzoko jaia aurreratutako egin dute aurten. Ekainaren 17an, igandean, izanen da aurten. Urtero bezala, Basakabi aurrean, Usategietako gainean ospatuko da jaia.

Egun osoko egitaraua presatatu dute, guztien gozamene-

rako. 10:00etako mezarekin hasiko dute eguna. Ondotik, herri kirolak, proba bereziak (nahi duenak parte hartu ahal izango du) eta haurrentzako jokoak izanen dituzte. 14:00etan mahaiaren bueltan bilduko dira. Bazkarirako txartelak egunean bertan Basa-



UTZITAKO ARGAZKIAK

600 lasterkari bildu dira Mendi Erronkan

617 lasterkari bildu ziren Euskal Herria Mendi Erronkan. Raul Macarro bilbotarra eta Izaskun Zubizarreta oiartzuarra izan ziren helmugaratzen lehenak; bailarako lehendabizikoak, berriz, Iban Bengoetxea herritarra eta Leire Baraibar aresoarra. VI. edizio horretan Torrealdai omendu zuten.

Kabin salgai izango dira. 17:00etan XXXIV. mus txapelketa (10 euro) izanen dute eta ordubeteren buruan dantzaldia hasiko da. 19:30ean Txintxurrin txapelketa eta segidan zozketak (momentuan aurkeztu behar da zozketa-txartela) izanen dituzte. Eguna txokolate beroa dastatuz bukatuko dute. Trikitilariak ez dute hutsik egingen, bazterrak mugiarazten ibiliko dira.



Txintxurrin txapelketa izango dute.

Udakolore balkoi lehiaketa erabakiko dute larunbatean

Epaimahaikideak herrian barna ibiliko dira etxeetako balkoiak eta leihoak ikusten

TTIPI-TTAPA

Herritarrek eta turistek ingurune atsegin eta ederraz gozatzeko, herriaren itxura hobetzeko udakolore balkoi lehiaketa antolatu du Udalak lehenengo aldiz. Larunbat honetan, ekainak 16, egina dute hitzordua eta egun horretan epaileak herrian barna ibiliko dira balkoiak eta leihoak ikusten.

Epaimahaikideek etxearen aurrealdearen zainketa eta itxura osoa, balkoi eta leihoen edertasuna, apainketaren originaltasuna, loreen konposi-

zioa eta bestelako elementu osagarriak hartuko dituzte kontuan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez da inon izenik eman behariko.

Epaileek hobekien apaindutako balkoia eta leihoa aukeratu dituzte eta irabazleak herriko komertzioetan gastatzeko 150 euro hartuko ditu sari gisa. Irabazlearen izena egun berean jakinaraziko dute Udalaren webgunean (www.goizueta.eus). Lehiaketako irabazleak bonoa gastatzeko hiru hilabeteko epea izanen du.

40 neska-mutiko ariko dira uztailean igeriketan

Beste urte batez, igeriketa ikastaroa antolatu du Guraso Elkarteak. Ikastaroen eskaintza zabala bazen ere, igeriketa bakarrik atera da aurrera. 3 eta 13 urte bitarteko 40 neska-mutikok eman dute izena eta uztailean egunero Hernaniko igerilekura joanen dira.

Zubimuxurako langilea kontratatu nahi du Udalak

Aterperako langilea hartu nahi du Udalak, lanaldi partzialeko kontratuarekin, astean 29 orduz edo hiruzpalau hilabetez aritzeko. Harrera, erregistroa, garbiketa eta informazio turistikoa eskaintzea izanen dira bere egitekoak. Informazioa: www.goizueta.eus.

Xalto eskolako ikasleak sarituak izan dira

Goizuetako Paula Etxeberriak eta Uxue Rodrigezek eta Aranoko Eneritz Salaberriak Diario de Navarra Fundazioak antolatutako Kazetaritza Lehiaketako saria irabazi dute.



UTZITAKO ARGAZKIA



FELIX LOIARTE

Umore Onak ikasturtea agurtu du

Etxetik eta etxetik kanpo ere emanaldi ugari eskaini ditu Umore Ona Abesbatzak ikasturte honetan. Eta denboraldia agurtu ere hasi bezala egin du, kantuan. Ikasturteari behar bezalako agurra emateko, ekaineko lehenbiziko asteburuan, kalez kale kantari ibili ziren Umore Ona Abesbatzakoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Galduta ere pilotazaleak Aimarrekin

Maiatzaren 27an jokatu zuen Aimar Olaizolak buruz buruko txapelketa nagusiko bere hamargarren finala. Bosgarren txapela janztea zuen helburu, baina 14-22 galdu zuen Altuna III.aren kontra. Halere, pilotazaleek beraien animoak eta babesa eman zizkieten herriko pilotariari.

Apezetxeatarrek irabazi dute IV. pilota txapelketa

Pilota gozoarekin jokatu den binakako 4. txapelketan, zortzi bikotek parte hartu dute eta irabazleak Jon eta Aitor Apezetxea izan dira. Ander eta Jon Apezetxea hartu behar izan zituzten mendean finalean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibero dorrea zaharberritzeko obrak hasiak dira

445.257 euroko kostua bere gain hartu du Gobernuak eta Leitza eta Goizuetako udalek auzolana bultzatuko dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kultura, Gazteria eta Kiroleko kontseilari Ana Herrerak Leitzako Ibero dorrea zaharberritzeko lanak bisitatu zituen maiatzaren 23an, multzo historiko hau zaharberritu eta ezagutzera emateko Leitzako eta Goizuetako udalekin sinatu duen lankidetzeta-hitzarmenaren harira.

Ibero dorrea zaharberritzeko lehendabiziko lanak 2017an hasi eta joan den martxoaren 12an berrabiatu zituzten, urte bukaerarako osatzeko asmoz. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du dorrea zaharberritzeko lanen kostua, 445.257 euroko zenbatekoarekin, eta Leitzako eta Goizuetako udalek eginahal guztiak egingen dituzte inguru horretarako sarbidea bermatzeko: ibilbideak eta aparkalekua jarritz, aldameneko baserria kontserbatuz eta Erdi Aroko burdinolaren aurri dagokien balioa emanez, esaterako. Iberoko ingurua zaindu, mantendu eta ezagutzera emateko bideratu beharreko ekintza guztien artean, bi udalek auzolana bultzatuko dute, komunitatea eta lurraldea ondare kulturalaren biziberritze eta zabalkundean uztartzeko asmoz.

Era berean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du Erdi Aroko zubia eraberritzeko eta oinarritzeko sarbidetzat egokitzeko proiektua aurrera ateratzeko ardura. Proiektua lizitazio-prozesuan dago jadanik, 150.000 euroko aurrekontuarekin.



Mikel Zabaleta, Ana Herrera eta Unai Loiarte, hitzarmena sinatzen. UTZITAKOA



DENA
ERRAZAGOA
DA HURBIL
BAZAUDE





Maiatzaren 4an egin zuten Irurritako eskolako baratze hezitzailearen inaugurazioa. UTZITAKO ARGAZKIAK

Lamien Urrezko Orrazia saria jaso du (H)ilbeltzak

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak ematen duen saria maiatzaren 31n jaso zuen

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Zaldiko Maldiko Kultur Elkarteak (H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea ekimena saritu du Lamien Urrezko Orraziarekin, «gure elkartearen egite moldearekin bat heldu den ekimena baita, hots, herritarrek auzolanean pentsatu, abiatu eta taxutua, eta euskara kulturaren erdigunean paratu duena». Sari banaketa maiatzaren 31n egin zuten eta (H)ilbeltzako ordezkari, Maitane Maritorea, Elurre Iriarte, Ernesto Prat eta Alberto Atxa izan ziren, baita (H)ilbeltzaren hasmentan el-

karteko kide izan zen Joseba Otondo Baztango alkatea ere.

Lamien Urrezko Orrazia izeneko saria euskararen eta euskal kulturaren aldeko lanean nabarmendu den talde edo gizabanakoari ematen diete urtero, duela 30 urtetik baino gehiagotik honat. Zaldiko Maldikoko presidentearen eskutik jaso zuten saria.

Merezimenduak

Saria ematen duen Zaldiko Maldiko Elkarteak (H)ilbeltzaren merezimenduak aipatzerakoan zera dio: «(H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren

Astea da eta urtarrilero antolatzen da 2015az geroztik Idazleekin Solasean irakurle taldeetik abiatuta. Ekimenak gero eta arrakasta handiagoa du urtetik urtera, eta gune garrantzitsua da gaur egun euskal kultura eta literaturarendako. Gainera, hasmentatik beretik nabarmendu dute euskarak ere izan duela eta baduela bere ekarpen baliosa genero beltzean, Baztan euskal nobela beltzaren sorlekue-tako bat izan zela aldarrikatuta, Mariano Izeta elizondarraren *Dirua galgarri* nobelak 1962an ikusi baitzuen argia lehendabizikoz. Beraz, Baztan aspaldi dago genero beltzari lotua, euskararen bidez, gainera, eta ez da gaur egungo kontua, modan dagoen erdal idazle baten liburuaren karira bertzelako ustea zabaldu bada ere».

Hurrengo urtean ere Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatzen segitzeko asmoa dute elkarteko kideek.

Eskubaloi besta antolatu du BKTk larunbaterako

Baztango Kirol Taldeak esku-baloi besta antolatu du ekainaren 16an. Larunbatean 10:30etik 13:30era jokoak eta partidak izanen dituzte Elizondoko kiroldegian, adin guztiendako irekiak. Eskubaloi-a gustuko dutenek probatzeko aukera ederra dute.

Inhaladorea erabiltzen ikasteko tailerra Elizondon

Inhaladorea erabiltzen ikasteko tailerra eginen dute ekainaren 21ean, ortzegun goizeko 10:00etatik 12:00etara Elizondoko Osasun Zentroan. Izen-amatea Elizondoko Osasun Zentroan berean edo 948 581833 telefonora deituz egin daiteke.

Aldi baterako gizarte langilea behar du Udalak

Eszedentzian dagoen langile baten ordezkapena egiteko euskara ezagutza duen gizarte langilea behar du Udalak. Lanaldi osoan aritzeko izanen litzateke eta lanpostuaren titularra berriz lanean hasi arte iraunen luke. Eskabidea hilaren 14a arte egin daiteke.

Indarkeria sexistaren kontra berriz ere

Substantzia bat eman ondotik, emakume bati sexu abusua leporatuta, 47 urteko gizasemea atxikotu zuten maiatz hondarrean. Hilaren 29an elkarretaratzea egin zuten Elizondoko plazan eta ekainaren 1ean solasaldia ere eman zuten Emaginek.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Oronozko frontoiaren jabe egiteko asmoa du Baztango Udalak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

268.100 euroko inbertsio sail berria onartu du Udalak

Hamaborts proiektu eginen ditu, iazko urteko kontuetatik gelditutako diruzaintzako gerakinarekin

TTIPI-TTAPA

2017ko kontuak hetsi bidena-bar, maiatzaren 24an egindako ohiko osoko bilkuran aitzi-neko urteko kontuetatik gelditutako diruzaintzako gerakinarekin inbertsio berriak egitea onartu du Udalak. Denera, hamaborts proiektu-aren bidez 268.100 euroko inbertsioa eginen du. EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak osatutako udal gobernuaren proposamenak UPNren babesa izan zuen. Hortaz, aldeko hamar bozkekin eta Geroa Bairen kontrako birekin, inbertsioak egin ahal izateko

aurrekontu moldaketa egitea onartu zuten.

Inbertsioak

- Elizondoko Merkatuko plazako komunak 27.000 euro. Aniztasun funtzionala duten jendeendako egokituko dira.
- Irurritako trinketetik erreboterako bidetaren moldaketa

ELIZONDOKO MERKATUKO PLAZAN KOMUNAK EGOKITUKO DIRA

13.100 euro. Bidea moldatuko dute hormigoia eta gobalite emanaz.

- Elizondoko Opoka zubiaren ondoko euspen-horma 18.000 euro.
- Argiaren kontratazioa egiteko plegu teknikoak 6.000 euro.
- Azpilkuetak komunak 9.000 euro.
- Haur eskolako sukaldeko labea 600 euro
- Bake epaitegirako paper xehatzailea 500 euro.
- Mantentze-lanetarako furgoneta 8.000 euro.
- Azpilkueta-Bergarako harribetabeta 7.500 euro.
- Oronozko frontoia erosteko 19.300 euro. Haizearekin frontoia erabiltzeko 75 urteko hitzarmena du. Haizeak gainetik kendu nahi ditu frontoia eta futbol-zelaia, eta Udalak herriarendako eta etorriko den eskualdeko lanbide heziketa zentro berriarendako jabetzan eduki nahi du.
- Orabideko bidetaren konponketa 16.200 euro.
- Garbigune proiektuaren idazketa 15.000 euro.
- Nekazaritza azpiegiturak 37.100 (%50eko diru-laguntza) Lizartzuko bidea moldatu eta aska berria egin, eta Beartzungo eta Azpilkuetak kanadiar pasabideak.
- Brea emateko lanak: Almanozko Mendiolan (22.000 euro), Elizondoko Giltxaurdi karrikan (12.040) Poskonean (14.500), Berron (7.500) eta Azpilkueta-Utsubi aldean (9.200).
- Bagordiko kuneta 17.000 euro.

Erdizko harrobi proiektua berriaz abiatu nahi du Magna enpresak

TTIPI-TTAPA

Magna enpresako zuzendari nagusi berria Udalarekin bildu zen maiatzaren 28an. Alkatearekin eta bi zinegotzirekin izan zen eta udaleko ordezkariak jakinarazi zien Erdizko harrobi proiektuari buruzko tramitazioa hasi nahi dutela. Ondoko egunetan Nafarroako Gobernu proiektuaren memoria aurkeztuko dute eta Nafarroako Gobernuak nolako ingurugiro txostena egin behar duten zehaztuko du. Udal ordezkariak berriaz kezka handiarekin hartu zuten eta Magnako zuzendari nagusiari Erdizko bazkaleku komunak duen balio ekonomiko eta ekologiko handia oroitarazi zioten, baita orain hamar urte harrobi proiektuaren kontra izandako mobilizazio handiak ere. Aldi berean, herri-lurrei buruzko erabakiak Baztango Batzar Nagusiak hartzen dituela erran zioten.



Komunalen aldeko bilkura, 2011n.

BENITO MENNI OSPITALE ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas Hospitalarias
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA


Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:

- Antzietatea - Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak - Dementziak

Mendinueta z/g
31700 Elizondo

www.hospitalariasnavarra.org

Centro con plazas concertadas con



Gobierno de Navarra

Zerbitzu berria
**PSIKIATRIA
ETA PSIKOLOGIAKO
KONTSULTA ANBULATORIOAK**
Tel. 948 452 162



Erreginak eta saratsak Arraiozen, maiatzeko hondar igandean. XABIER MARITORENA

Erregina eta Saratsa besta izan dute Arraiozen

Ohitura betez, maiatzeko hondarreko igandean egin zuten elizako gorapean, ez baitzen etxez etxe ibiltzeko eguraldirik

XABIER MARITORENA ARRAIOZ
Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, aurten ere, Erregina eta Saratsa besta izan dute Arraiozen, maiatzeko azken igandean. Gerra garaian galduta ibili zen tradizio handiko besta hori arraioztar batzuen lanketari esker, XX.mende hondarrean berreskuratu zuten.

Egun horretako protagonistak erreginak eta saratsak (kantariak) dira, emaztekiak denak. Erreginak Urrutia eta Mardeau auzoetako neskatiko bana izaten dira. Eta horiekin batera ibiltzen dira saratsak. Gazte kuadrilla normalean

puskak biltzen etxez etxe ibiltzen da. Baina aurten elizako gorapean bakarrik izan dira. Etxeko larrainetan nagusia leihora ateratzeko kanta kantatzen dute.

Ondotik pandero doinuekin batera erreginek jota bat dantzatzen dute. Etxeko nagusiek kantu eta dantzengatik sari ona ematen badu, erreginek eta saratsek bedeinkapen koplak betekin eskertzen dute, baina saririk ez baduen ematen, berriz, madarikazio koplak bat kantatzen diote. Lortutako diruarekin merienda ederra egiten dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aziendak Erdizera sartzen

Urtero bezala, ereiarioaren 1ean Erdizko herri-bazkalekuan behiak sartzen hasi dira. Iaz, 480 buru sartu ziren. Gainerako hilabeteetan zaldi-behorrak (aitzineko urtean 230 sartu ziren) eta ardiak (iaz, 1.200) izaten dira. Denera, 80 abeltzainek erabiltzen dute bazkalekua.



JUAN MARI ONDIKOL

'Herriko doinuak' ikuskizun bikaina

Artaxoako musika bandako musikariak eta bertako, Iruñeko eta Tuterako gaitariak lagun, Baztango dantzarien *Herriko doinuak* emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten maiatzaren 26an Elizondoko frontoia lepo bete zuten ikusleek. Antzerkia, dantza, musika eta historia uztartzen ditu lanak.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
comeliyanciberrueta.seguros.generali.es

Zure **BIZIA** da daukazun altxorrik haundiena, eta **OSASUNA** behar duzu ongi bizitzeko. Biek ongi mantentzera lagunduko dizuga, baita, zure bizia itzaliko den momentuan dena zuk nahi zena bezala eginez ere.

ESPEZIALISTAK GARA PERTSONEN ASEGURUAK EGITEN

Transgenikorik gabeko eremua izendatu dute Baztan

Izendapenak erranahi sinbolikoa du, genetikoki eraldatutako organismoen herritarrak eta erakundeak ohartarazteko

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 24an egin zen ohiko osoko bilkuran, Baztango udalerria *Transgenikorik gabeko eremu* izendatzeko akordioa hartu zuen Udalak. Nafarroako nekazaritza sindikatu eta elkarte ekologisten proposamenaren alde EH Bildu eta Baztango Ezkerraren sei hautetsiak agertu ziren. UPNko lauk kontra bozkatu zuten eta Geroa Baiko biek abstentziorat jo zuten.

Udalerria transgenikorik gabeko eremu izendatzeak erranahi sinbolikoa du eta horren helburua genetikoki eraldatutako organismoen herritarrak eta erakunde publikoak ohartaraztea da.

Mozio berean, Udalaren eskumeneko eremu publikoetan (parkeetan, lorategietan, bideen kontserbazioan...) glisofatorik ez erabiltzeko erabakia hartu zuen eta udal erakunde eta ekitaldietan (ikas-tetxeak, egoitzak, administrazio publikoak, ekitaldi publikoak eta bestak, jantoki sozialak, ospitalea edo osasun zentroa...) ekoizpen ekologi-



Glisofatorik ez du erabiliko Udalak.

koa tinko sustatu eta tokiko produktu ekologikoen aldeko kontsumoa progresiboki bul-tzatze konpromisoa. Akordioak dioenez, transgenikoak eta glifosato herbizidaren erabilera mehatxu larria da laborantza eta elikadura jasangarriaren ikuspuntutik eta zer erranik ez osasun publikoak, eragin sozioekonomiko negatiboak ekartzeaz gain.

Alternatiba bezala, aintzat hartu beharko litzateke oinarri sozialeko nekazaritza eta abeltzaintza jasangarria, biztanleak landa eremuan finkatzen dituen, baliabide naturalak zaindu eta tokiko baliabideak baloratzen dituen, kalitateko elikagaiak ekoiztea baitute helburu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tanatorio Iracheko Ate Irekiak Elizondon

Elizondon, Baztandarra beilatokiaren inaugurazioaren ondoren, aste betez atea irekiak izan dituzte, instalazioak ikusteko aukera emanez. Bi gela handi eta argitsu izan dituzte herritarrek beren esku eta azken agurra emateko agur-gelan edota lorategian egiteko aukera eskaintzen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Garagardoa egiteko ikastaroa

Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren barnean garagardoa egiteko ikastaroa hasi zuten ekainaren 1ean Arizkungo Gamioxarrean, Elizondoko Aise elkarteko Aparra garagardogileak taldeko Txomin Petrikorenarekin. Hilaren 29an, egindako garagardoa dastatzeko aukera izanen dute.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
KANTONAMENDU GARAPEN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Osatuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Alzate 1 BERA

URDAZUBI

'La Manada'ren auziaz adierazpena onartu du Udalak

Maiatzeko batzarrean ahobatez onartutakoaren arabera, Iruñeko gertakaria sexu-erasoak izan zela uste du udalbatzak

IÑIGO IMAZ

2016ko Sanferminetan jazo-tako sexu-erasoaren gaineko epaiak haserre piztu zuen Urdazubin ere. Nafarroako Auzitegiak 2018ko apirilaren 26an emandako epiairekin ados ez dagoen jende aunitzek elkarretaratze eta manifestu bitartez bere kontrakotasuna eta harridura adierazi zuen.

Udalak, aho batez onarturiko adierazpenak, epaileen eta magistratuen lana errespetatzen du lehenik. Hala ere, adierazpen-askatasuna eta kritikaren esparruan, epaiak

probatutzat eman dituen gertakizunak ezagututa, Udalak Iruñeko sexu-erasoak izan zela uste du. Beraz, ez dago ados Auzitegiak ezarritako zigorrarekin, sexu-abusu batentzat izan baitzen.

Adierazpenean, era berean, biktimari babesa eta elkartasuna adierazi dio, herritarren haserre eta nahigabearekin bat eginez, eta era guztietako sexu-eraso eta emakumeen eta genero-mota guztien kontrako indareriaren aurkako konpromisoa adierazi du idatzian Udal Batzarrak.



Herritarrek elkarretaratzea ere egin zuten, epaiaren kontra azalduz. IÑIGO IMAZ



UTZITAKO ARGAZKIA

Villares garaile Kontrabandisten bigarren Rallysprintean

Urdazubiko bigarren Kontrabandisten Rallysprinta burutu zen ekaineko lehen asteburuan. Nafarroako asfalto gaineko Rally txapelketarako baliagarria zen bigarren probako sailkapen orokorrean, lehen postua Sardara taldeko herriko Mattin Villaresentzat izan zen, Jon Zozaia goizuetarra kopiloto zuela, Renault Clio Maxi autoa gidatuz. Bigarren postuan, Ilargi Sport taldeko Joseba Beola etxalartarra eta Joxelu Irazoki igantziarra sailkatu ziren (Mitsubishi Lancer Evo X) eta hirugarrenean, Errebueltie motor kirol klubeko Alberto Marcos eta Maider Usandizaga gipuzkoarrak (BMW M3). 24 ibilgailuk parte hartu zuten proban.

BAZTAN

Palacio Aroztegiako sustatzaileak salatuta deklaratzera

Joan den ereiaroan Elizondoko plazan Aroztegiako proiektu urbanistikoaren kontra egindako Komantxeen kanpaldia-erengatik, Palacio de Aroztegia enpresak Baztango Udal Gobernuak bartz kideen aurka salaketa paratu zuen. Hain zuzen, Joseba Otondo alkatea, Mikel Ortega alkateordea, Maite Iturre, Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde zinegotziak salatuta zituen eta, joan den ortzegunean, Nafarroako Auzitegi Nagusian epailearen aitzinean deklaratu behar izan zuten.

Gartzainen elkarte berria inauguratu dute ekainaren 2an

Plaza ingurua bizitzeko helburuz, 56 bazkidek elkarte bat sortu dute Gartzainen. Elkar-tea sortzeko herriak apaizarena zen etxea erosi zuen eta bi urtez aritu dira auzolanean. Orain, beheko solairua gazteek besterako eta afariak egiteko erabiltzen dute eta komune-ko zaharberrietan-lanak akitu dituzte. Era berean, bazkide bakoitzak auzolanean jarduteaz gainera, 1.500 euro ordaindu behar izan ditu. Azkenik, bigarren solairua Erabilera Anitzetarako Aretoa izanen da.

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804 • anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3. km URDAZUBI



744 484 361

ttipi-ttapa

Pottokaren Ibilbidea ere egin daiteke 'Bideak ehuntzen'

Baztan-Bidasoa Turismoak bat egin du Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak martxan jarritako ekimenarekin

JOSEBIÑE ETA KORO

Baztan-Bidasoa Turismoak bat egin du Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak martxan jarritako *Bideak ehuntzen, Nafarroa urratsez urrats* ibilbideen ekimenarekin. Bi dira eskualdean, ekimen honen baitan egin ahal diren ibilbide gidatuak: Pottoka urdinaren ibilbidea, Urdazubi eta Zugarramurdi artean eta Xorroxingo ur-jauzira ibilbidea Erratzun. Ekainaren 2an egin dira lehen txangoak eta izena emateko 659 477396 telefonora deitu

edo info@orbela-beintza.com helbide elektronikora idatzi behar da.

11 kilometro

Zugarramurdi eta Urdazubi artean, Pottoka urdinaren ibilbidea dago. Azketa jatetxetik aterata, 11 kilometroko bidea da proposatutakoa. Bisitariak, paisaiatz gozatuko du, ehun urte baino gehiagoko haritzak ikusiko ditu, pottokak larretan lasterka, artaldeak...

Erratzun, Xorroxingo ur jauzira ibilbidea prest dago, 5'6 kilometrokoa.

Olasurko bide bazterrak garbitu eta hilerria margotu

Herriko Etxeari zergak ordaintzea gauza ona dela barnerratu beharko genuke, herrian egin behar diren konponketarako dirua behar baita. Berriki, Olasur auzoko bide bazterreko belar eta laharrak moztu dituzte eta kanposantuko etxola pintatu dute.

Asisko Urmenetak bere liburua aurkeztuko du

Ekainaren 15ean Asisko Urmenetak bere azkeneko liburua aurkeztuko du gure herrian: *Eusklabo alaiak*. Ez da aurkezpen arrunta izanen, mintzaldi-ilustratu modura antolatua baita. Museoan egingen da, ortziralera ilunabarreko zortzietan.



JOSEBIÑE ETA KORO

Bestaberri Eguneko prozesioa

Ekainaren 2an, larunbat ilunabarrean, Besta-berri eguneko prozesioa atera zen, usaiako ibilbidea eginez: elizatik Beheitiko karrikako kaperarat, hortik plazarat, eta plazatik Elizargietarat. Argazkian, Beheitiko karrikako kaperan ageri da prozesioa.



JOSEBIÑE ETA KORO

Loinatzen bataioa egun berean

Ekainaren 2ko eguerdian, Loinatzen bataioa izan genuen, beraz, aperitifako tenorea guztiz animatua izan genuen. Argazkian ageri denez, sosa eta gozoki euria ere izan zen bataioaren ondotik. Biharamunean, Xaretaren Egunean, mezan kantari izan ziren Zugarramurdiko elizako kantariak.

DASTA EZAZU!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralera 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

JOSEPHINE'S ENGLISH
 Bertako irakasleak

MATRIKULAZIOA IREKITA:
 2018-2019. Ikasturteko klase partikularrak

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen Amaiurko Gaztelua, 2 Elizondo
 948 453 453

Uda sasoian ere ikusgarriak herritar eta bisitariarentzat

Ereiaroaren 26an Pottok Eskolak herri-kiroletan aritzeko aukera eskainiko du pilota plazan

TTIPI-TTAPA

Hilabete beteaz izaten da ereiaro herrian, gisa anitzetako ikusgarriak izanen baitira, eta aurten ere halaxe izanen da. Kantua maite dutenek aste honetan ez ezik, ondokoetan ere hainbat doinurekin gozatzeko aukera izanen dute. Ortzegun honetan, ereiaroak 14, Goraki abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan. 21:30ean hasiko da eta sartzea hamar euro ordaindu behar da.

Ereiaroaren 21ean, berriz, Erlauntza abesbatzak hartuko du lekukoa. Elizan ariko da kantari, 21:00etatik aitzinera. Sartzea bortsu euro ordaindu behar da eta 15 urtetik beheretikoek urririk izanen dute.

Biharamunean, ereiaroak 22, eskola publikoaren besta eguna izanen da. 18:00etan

haurrek ikusgarria eskainiko dute eta ondotik, bazkaria egingen dute. Eguraldi on bada, eskolan egingen dute hitzordua eta txarra bada kiroldegian.

Ereiaroaren 26an, bi orduko ikusgarria antolatu du Pottok Eskolak. 20:00etatik aitzinera, herri-kiroletan aritzeko aukera eskainiko dute: sokatira, lasto eta gurdi altxatzeak, txinga eramatea, kokxor biltzea, zaku lasterketa... 19:30etik aitzinera jatekoa eta edatekoa ere emanen dute Pottok Eskolakoek. Parte hartzeko, helduek zortzi euro eta haurrek lau euro ordaindu behar dituzte. Denbora onarekin frontoian bilduko dira eta txarrek kiroldegian.

Bertzalde, ereiaroaren 27an, Mendi Xola abesbatzak kantaldia eskainiko du, 21:00etan elizan.



GANEX

St Josep eskolakoak Baigorriin

St Josep eskolako ikasleak Baigorriin izan ziren maiatzaren 16tik 18ra. Lehenbiziko egunean, erleen inguruan ibili ziren, ezitia nola egiten den ikasi eta dastatu zuten. Biharamunean, indiarrez mozorrotuta, dantzan eta kantari aritu ziren, eta hondar egunean Oxozelhayako leizeak bisitatu zituzten.

Zazpiak Bat dantza taldearen saio jendetsua

Haur, buraso, amatxi eta aitaxi andana bildu ziren joan den ereiaroaren 1ean Zazpiak Bat dantza taldekoen ikusgarria ikustera. Amaia Arotzena lehendakaria kontent gelditu zen emaitzarekin. 110 haur eta heldu dantzari ibiltzen dira Zazpiak Bat taldean.



Zazpiak Bat taldekoak dantzan. GANEX



GANEX

Xareta Eguna giro ederrean

Ereiaroko lehenbiziko igandeko hitzordu haundia Xareta Eguna izan zen. Goizean, denbora ederrak lagunduta, bote luzeko partidak jokatu zituzten; ondotik, aperitifak eskaini zuten Sarako kantariak airostua eta eguerdian, Sara eta bertze hiru herrietako 70 lagun elkartu ziren bazkaltzeko.



GANEX

Beti Gazteko lagunaren hitzordua

Beti Gazte elkarteko 80 kidek uda aitzineko bigarren elkarretaratzea egin zuen ereiaroaren 2an Pikassarria jatetxean. Ederki bazkaldu ondotik, euskal kantak kantatzen ibili ziren. Hurrengo hitzordua abenduaren 8an izanen dute Ur Egui jatetxean.



Haur zein helduak Kamishibai aditzen Mediatekan. YANNICK AUDOT

Kamishibai eta albumak aditu dituzte haurrek

Herriko Mediatekak holako ekitaldiak eskuaraz maizago antolatu nahi ditu 3-9 urteko haurrendako

PIERRE BASTRES

Gan den urteko hazilaz geroztik Mediateko arduraduna da Yannick Audot, eta haurrendako eskuarazko aribide edo jarduera gehiago muntatu nahi lituzke. Adierazi duen bezala, «horrelako hamar emanaldi emaiteko asmoa dut. Ni Herriko Etxeko langilea izanagatik ere, gogo oneko nahiantekin elkarlanean aritu nahi dut. Alde batetik eskola elebiduendako egitaraua edo programa osatu eta osatuko dugu, eskuarazko irakurketekin. Bertze aldetik, gauza berdintsuak asmatuko ditugu nahi duten haur guziendako, opor eta aste hondarreko egunetan eskaintzeko».

Japoniatik datorren Kamishibai

Irakurketa zer den eta nola pasatzen den argitzeko, Yannickek gaineratzen du: «12-15 haur elkarretaratzen ditugu, eta gutti goiti-beheiti hiru komiki edo BD nahianta batek irakurtzen ditu. Artean edo



Neska-mutikoak kontalariari adi.

ondotik, nik edo bertze norbeitek Kamishibai bat erakusten eta kontatzen dugu. Kamishibai Japoniatik dator kigu; irakurtzen ez dakitenei Budismoa zer zen erakusteko baliatzen zuten, teatroa bezala. Zurezko lauki bat da etorkiz, zeinetan irudi bat emaiten baita. Kontalariak irudiaren historia kontatuta, kentzen du eta bertze bat ezartzen du. Haurrek maite dute aunitz, arras egokia zaiote, ulertzeko nahiko danbora dutelako. Orain lanik handiena da heldu den ikasurterako liburu onen hautatzea, eta Kamishibai itzularatzea eskuaraz, holako deus gutti delakoz!».

Frantziako ekonomia ministroaren etxe aitzinean aldarrikatu du Seaskak

PIERRE BASTRES

Gogoratu dezagun lehenik Seaska eta Frantziako Hezkuntza ministerioa lotzen dituen antolamendua edo kontratua Frantses Gorbenuak ez duela neholaz ere betetzen Seaskaren ustez: 25 irakasle postu behar zirelarik sortu heldu den ikasurterakotz, bortz baizik ez du proposatzen ministerioak. Ainitzetan ahalmenak guttiegi dira, eta erakasle batek gaitzesten duen bezala, «haur izenpetze batzuen ukatzerat behartuak gara, ez da onargarria».

Bertzalde badu urte zombait Senperen etxe bat daukala Bruno Lemaire Frantziako Ekonomiaren ministroak, Her garai auzoan hain zuzen. Burasoei errana izan baitzaiote arazoa ekonomikoa zela, parada ez dute gaterat utzi Ikas-



Elkarretaratzea etxe aitzinean.

tolen burasoei, eta piknika hantxe antolatzea deliberatu dute, beren ahotsa Parisek hobeki aditu dezan.

Orotarat 500 ziren parte hartu dituztenekitaldi honetan, Iparralde osotik etorriak. Janeko aintzineko astean bertze herri eta hiri ainitzetan elkarretaratze batzu egin zituzten beren haserre eta ulertu ezina erakusteko. Honenbertzez ekintza honek jarraipenak izanen dituzte.

Ereiaroaren 29tik uztailearen 3ra bestetako programa zabala izanen da

PIERRE BASTRES

Jondoni Petri bestak ereiaroaren 29tik uztailearen 3ra izanen dira. Ereiaroaren 23an, larunbatean, Ihiztarien Etxolako eguna ospatuko dute. 09:00etan Ball-trap eta bazkaria (14 euro).

Ereiaroaren 29, ortzilarea

14:00: Eskolen lasterketa, kirol zelaian. 18:30: Esku huskako Senpereko openeko lehen finalderdia. 20:00: Zintzur bustitzea, pilota plazan. 21:30: Zikiroa, pilota plazan "Ezberak" taldeak alaituta. Etxeratzeko taxiak urririk.

Uztailearen 1a, igandea

10:30: Meza, Emak-Hor, Danborada eta txarrangek animatuta. 11:30: Esku huskako Senpereko opena. 12:00: Zintzur bustitzea, pilota plazan. 13:30: Bazkaria. 16:30: Ton-

bola. 18:00: Ahate jokia. 19:30: Kantaldia, Niko Etxart eta Robert Larrandabururekin. 20:30: Legatza koskera dastaketa, La Nivelles ostatuan. 22:00: Dantzaldia, Samain taldearekin.

Uztailearen 2a, astelehena

07:00: Laborantza primakak Utxalea aparkalekuan. 12:00: Eskeak. 16:00: Besta Komitearen desfilea. 20:30: Gazteen pilota txapelketaren finalak esku huskan eta bildoski dastaketa Santiago ostatuan. 21:00: Gaudia, Klikak alaituta.

Uztailearen 3a, asteartea

11:30: Zintzur bustitzea, pintxoak. 14:00: Petanka binakako txapelgoa, "Bergues" parkean. 16:00: Haurren askaria eta animazioak. Egunaz eta gauaz: Txarangak, kontzertuak eta DJa.

«Duatloietan segiko dugu elkarrekin momentu gehiago biziz»

MIKELE ETXEKOLONEA ETA SARAI MARITORENA DUATLOILARIAK

Berriki hasi dira zubietar eta berroetar gaztea duatloietan parte hartzen. Hasi badira hasi, ez dute hankak gelditzeko asmorik, «kirolaz eta naturaz gozatzen segitzea dugu helburu».

NEREA BAZTERRIKA

Kirol munduarekiko harremana «ttikitatik» izan duten gazteak dira Mikele Etxekolonea zubietarra eta Sarai Maritoren berroetarra. Gurasoen zaletasuna bere eginez, herriko plazan eta inguruko mendietan ibili izan da Etxekolonea. Doneztebe Futbol Taldean ere aritu izan da. Belauneko gaitortasun bat tarteko, futbola utzi eta medikuen gomendioak segituz, bizikleta gainera egin zuen salto. Pixkan-pixkan txirrindularitzari lotu eta «mendi bizikletako talde batean» eman zuen izena. Azken aldian, ordea, bere kabuz ari da. Maritoren, berriz, Basaburua taldearekin «herri kirolean» ibilia da eta gaur egun «sokatiran» dabil. Azken hilabeteetan lagunekin edo bakarrik laster egitera joateko ohitura hartu du: «buruhausteak atzenu eta egunerokoarekin hausteko lagungarria zait». Bien zaletasunak uztartuz, duatloietan hasi dira.

Nola eman zenuten lehendabiziko urratsa?

Azken hiruhilekoan Gorputz Hezkuntzako irakasleak kirol bana aukeratzeko eskatu zigan. Guk mendi bizikleta eta lasterketa hartu genituen. Ordu-rako Iruritako duatloia egitea pentsatzen genuen. Nafarroa Oinez harira, Altsasun Bizi duatloia egitekoa zutela oharturik, ez genuen galdu nahi izan. Elkarren arrimuan eta Joxeren, Gorputz Hezkuntza-

ko irakaslearen, animoekin biak egin ditugu. **Nola joan zen lehendabiziko lasterketa?**

Bero-beroan joan ginen, Gorputz Hezkuntzako saioetan entrenatutakoarekin eta bi aldiz pentsatu gabe. Eguraldi



Bizi duatloiko podiumean, punta-puntan. UTZITAKO ARGAZKIA



Iruritako duatloian helmugaratzea ospatzen. UTZITAKO ARGAZKIA

«ITSUAN JOAN GINEN, BAINA EMAITZAK INDARRA EMAN ZIGUN»

«EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA ETA LANA EZ DA NABARMENTZEN»

arras ona izan genuen, ibilbide polita izan zen eta emakumezkoen artean lehenengo postua lortu genuen. Helmugara ailegatu ginenean batetik, gure buruarekiko harrotasuna eta bertetik jendearen harre-beroa sentitu genuen. Momentua oso berezia eta polita izan zen. Ez genuen inondik inora espero. Hori ospatzeko, han bertan, bazkari eder bat egin genuen.

Iruritan parte hartzeko bultzada eman zizuen horrek?

Bai, Altsasukoa akitu genuenean Iruritako duatloia egiteko gogoia areagotu zen. Bage-nekien Iruritakoa gogorragoa izanen zela, eta urduritasunez eta kezka hartu genuen. Hala ere, bigarrenak ailegatu ginen, 03:26 behar izan genituen. Sailkapena ona izan zen baina bertan gozatutakoa hobea. Euria eta ekaitza izanagatik, jendea bertaratu zen... Auniz animatu ziguten eta antolatzailleek lan paregabea egin zuten. Beraz, hemendik esker-erak eman nahi genizkioke Iruritako herriari.

Oraindik emakumezko gutti ikusten ditugu halako ekitaldietan...

Hala da, kirolean gero eta emakume gehiago ikusten baditugu ere, lan handia dago egiteke. Areago, haien gutti izanda, beraien lana eta presentzia ez da nabarmentzen. Gure ustez emakumezkoek kirolean beraien tokia izateko zaletasuna ttikitatik landu behar da. Duatloia bezalako ekitaldiak kirolari guztiak bizi beharrekoak direla uste dugu, bakoitzak bere maila eta helburua kontuan hartuz, noski. **Aitzinera begira zer asmo duzue?** Lehian edo ez, kirolaz eta naturaz gozatzen segitu nahi genuke. Duatloietan parte hartzen segitzea pentsatzen dugu nahiz eta oraindik ez dakigun hurrengo zein izanen den... Hau hasiera bertzerik ez da izan... Bi duatloi horiek elkarrekin sufritzeko, elkar laguntzeko eta momentu berezi eta bakarrak bizitzeko aukera eskaini digute.



Indakoetxea-Begino garaile eta Bereau-Altzugarai hirugarren. UTZITAKO ARGAZKIA



Emakumeen bikoteen podiuma. UTZITAKO ARGAZKIA

128 kirolarik akitu dute Irurritako I. Mendi Duatloia

Gizonezkoetan, Indakoetxea eta Begino bortziritarrak garaile eta emakumeetan, Etxeberria eta Berho baztandarrak

TTIPI-TTAPA IRURITA

128 kirolarik parte hartu zuten maiatzaren 26an Irurritako lehen Mendi Duatloian. Eguraldi kaskarrari aurre egin behar izan zioten, euria, oinazturak eta ostotsak izan baitzituzten lagun lasterka egin beharreko 10 kilometrotan (600 metroko desnibelarekin) eta mendi bizikletan egin beharreko 21 kilometrotan (850 metroko desnibelarekin).

Sailkapenei dagokienez, ibilbide osoa bakarka egin zuten hamalau lagun artean,

Hernaniko Ibai Alba erraz nagusitu zen, bi ordu, 17 minutu eta 34 segundoko denborarekin. Iruñeko Thibaut Bertrand bigarren izan zen (02:31:45) eta Doneztebeko Igor Agestak osatu zuen podiuma (02:35:54).

Ibilbidea binaka eta txandaka egin zuten artean, berriz, gizonezkoetan, Juan Mari Indakoetxea lesakarra eta Aitor Begino igantziarra izan ziren bizkorrenak (02:10:28). Bigarren postua Mikel Zuriarrain eta Ugaitz Olaizola oartzuarentzat izan zen (02:13:32)

IRURITAKO I MENDI DUATLOIA

BINAKA MUTILAK

1. Juan Mari Indakoetxea (Lesaka)-Aitor Begino (Igantzi)	02:10:28
3. Agoitz Altzugarai (Lesaka)-Ibai Bereau (Lesaka)	02:15:16
4. Joseba Lasarte (Bera)-Iñaki Odriozola (Bera)	02:17:19
5. Mikel Mugika (Arizkun)-Dani Etxeberria (Arizkun)	02:17:21
6. Alberto Barberena (Lekaroz)-Gorka Otondo (Elizondo)	02:17:35
7. Eñaut Jauntsarats (Irurita)-Joseba Oskariz (Lekaroz)	02:18:02
8. Unai Iantzi (Aniz)-Jon Maritorea (Gartzain)	02:19:15
9. Iñaki Mihura (Arraioz)-Xabier Bengoetxea (Arraioz)	02:19:23
10. Eneko Aizagirre (Leitza)-Daniel Alvarez (Leitza)	02:20:34
13. Xabier Irazoki (Sunbilla)-Iñigo Arrieta (Sunbilla)	02:23:59
14. Joxe Mari Zamora (Oronoz)-Fernando Zubillaga (Irurita)	02:25:37
15. Ivan Santesteban (Doneztebe)-Ibai Ordax (Doneztebe)	02:25:38
16. Iñaki Iantzi (Aniz)-Gabon Gamio (Aniz)	02:27:29
17. Beñat Ordoki (Lesaka)-Ganix Arruti (Lesaka)	02:28:40
18. Sergio Ariztimuño (Leitza)-Ion Kanflanka (Leitza)	02:31:04
21. Aimar Leache (Donamaria)-Koldo Herrera (Sunbilla)	02:31:40
26. Iker Iriarte (Lesaka)-Aimar Otxoteko (Lesaka)	02:40:18
27. Unai Barazabal (Azpilkueta)-Aitor Iturralde (Azpilkueta)	02:40:20
28. Xanti Dendarrieta (Erratzu)-Manu Irigoien (Erratzu)	02:44:22
30. Jagoba Ramos (Irurita)-Oinatz Jautsarats (Irurita)	02:47:04
31. Jon Oskaritz (Arizkun)-Jose txo Etxeberria (Arizkun)	02:47:21
32. Cesar Sarratea (Irurita)-Luis Miguel Bikondo (Irurita)	02:47:49
34. Juan Carlos Elorz (Elizondo)-Imanol Arretxea (Elizondo)	02:53:23
36. Xabier Maritxalar (Lesaka)-Ion Olaizola (Lesaka)	02:53:49
38. Santiago Lertxundi (Irurita)-Iñaki Garaikoetxea (Irun)	02:55:30
39. Joxe Iturzaeta (Arizkun)-Aimar Jabalera (Doneztebe)	02:56:35
41. Rafa Alzate (Bera)-Felix Alzate (Bera)	03:01:36
42. Jaime Fagoaga (Elizondo)-Aitor Hernaiz (Lakuntza)	03:05:54
45. Guillermo Etxenike (Irurita)-Manu Castro (Antsoain)	03:12:27
48. Pello Urrutia (Irurita)-Tomas Iturregi (Irurita)	03:16:22
49. Patxi Sarratea (Almendoz)-Unai Santxotena (Erratzu)	03:16:25
50. Javier Castrillo (Burgos)-Joaquin Goienetxe (Irurita)	03:20:50
53. Iñigo Dendarrieta (Irurita)-Manex Mitxelena (Irurita)	03:34:23
54. Iker Casillas (Irurita)-Ruben Danboriena (Irurita)	03:41:48

BINAKA EMAKUMEAK

1. Itziar Etxeberria (Elizondo)-Josune Berho (Lekaroz)	03:09:00
2. Mikele Etxekolonea (Zubietako)-Sarai Maritorea (Berroeta)	03:26:44
3. Maite Erize (Irurita)-Mari Jose Aleman (Irurita)	04:16:33
4. Miren Meoki (Lekaroz)-Miren Josune Iturzaeta (Arizkun)	04:16:33

BINAKA MIXTOA

6. Xabier Jaimerena (Arizkun)-Noemi Martirena (Elizondo)	02:53:43
7. Marijo Mayora (Irurita)-Mikel Salaberri (Irurita)	02:54:43
8. Rosa Agerre (Antsoain)-Eduardo Danboriena (Elizondo)	03:07:56
9. Jon Apeztegia (Doneztebe)-Maidar Mindegia (Doneztebe)	03:13:14
10. Arantxa Goñi (Elizondo)-Luis Mariezkurrena (Arrarats)	03:33:46

BAKARKA

3. Igor Agesta (Doneztebe)	02:35:54
5. Mikel Urtxegi (Igantzi)	02:38:44
6. M.A. Iñarrea (Irurita)	02:39:41
7. Jabier Arregi (Elizondo)	02:44:31
8. Aritz Perez (Bera)	02:47:08
9. Ander Loiarde (Doneztebe)	02:48:45
10. Eneko Herrera (Sunbilla)	02:54:37
11. Sergio Morate (Bera)	02:54:42
12. Aritz Zulaika (Doneztebe)	03:22:45
13. Migel Ariztegi (Irurita)	03:28:05

eta hirugarrena Agoitz Altzugarai eta Ibai Bereau lesakarentzat (02:15:16).

Emakumezkoetan, lau bikote atera ziren, denak eskualdekoak. Elizondoko Itziar Etxeberria eta Lekarozko Josune Berho izan ziren garaile (03:09:00); Zubietako Mikele Etxekolonea eta Berroetako Sarai Maritorea bigarren (03:26:44) eta hirugarren postuan batera helmugaratu ziren Maite Erize eta Mari Jose Aleman iruritarrek eta Arizkongo Totu Iturzaeta eta Lekarozko Miren Meoki (04:16:33). Biko-

te mistoetan, hamarren artean Gipuzkoako hiru bikotek osatu zuten podiuma eta eskualdekoen artean, Xabier Jaimearena eta Noemi Martirena izan ziren bizkorrenak.

AGENDA

EKAINAK 14-28

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

LEITZA

Hondakin bereziak eta materia organikoa kudeatzen ikasteko formazio saioak

Natxo Irigoien eta Joseba Santxezen eskutik.

Mendialdea Mankomunitatean, ekainaren 14an, 21ean eta 28an, 17:30etik 20:00etara.

ARANO

Buruhandi tailerra

Maisuenean, ekainaren 13tik uztailaren 25era bitarte, asteazkenero, 19:00etatik 21:00etara.

ARANTZA

Antzinako garaiei buruzko tailerra

Arantzadi Zientzia Elkarteko arkeologoaren eskutik.

Plazan, ekainaren 22an, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

Rebeca akademiako ikasleen dantza jaialdia

Ekainaren 16an.

LEITZA

Ehoziri Topaketa

Ekainaren 17an, 11:00etatik 14:00etara.

DONEZTEBE

Firin-farandula antzerki taldearen emanaldia

Ikasturte bukaerako bestaren harira.

Ekainaren 23an. 18:30ean.

SARA

Euskal proben ikuskizuna

Herri kirolak, 19:30etik aitzinera jatekoa eta edatekoa izanen da.

Ekainaren 26an, 20:00etan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ARESO Sanpedroak

Herri-kirolak, lagun arteko afariak, sagardo dastaketa...
Ekainaren 29an eta 30ean.

HITZALDIA

BERA

Euskaraldiaren aurkezpena

Illeketako parkean, ekainaren 29an, 19:00etan.

LEITZA

Baratzeetan barna

Jakoba Errekondorekin.
Ekainaren 23an, 11:00etan.

KIROLA

BERA

Emakumezkoen pala txapelketa

Eztegara pilotalekuan, ekainaren 15ean, 17:00etan.

Baietz futbolean

5-14 urte bitartekoentzat.
Ekainaren 25etik 30era. Izen-ematea ekainaren 15a arte.

ARANTZA

Mendi itzulua Mendaurrea

Solaslaguna egitasmoak

antolatuta, ikasturtea agurtzeko hitzordua.

Ekainaren 17an.

DONEZTEBE

Herri krosa

Ekainaren 24an.

SARA

Ibilaldi gidatua

Ekainaren 27an, 09:30ean abiatuta.

KONTZERTUAK

SARA

Goraki abesbatzaren kontzertua

Elizan, ekainaren 14an, 21:30ean.

Erlauntza abesbatzaren kontzertua

Elizan, ekainaren 21ean, 21:00etan.

Mendi Xola abesbatza

Elizan, ekainaren 27an, 21:00etan.

BERA

Udako kontzertua

Isidro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleen eskutik.
Kultur etxean, ekainaren 18an, 18:00etan.

LESAKA

Leitzako Jeiki korala

Komentuan, ekainaren 16an, 20:00etan.

BESTAK

BERA

Aitzateko bestak

Ekainaren 15etik 17ra bitarte.

LEITZA

Gorritzarango jaia

Ekainaren 17an.

ARIZKUN

Herriko bestak

Ekainaren 21etik 25era.

SALDIAS

Herriko bestak

Ekainaren 22tik 24ra bitarte.

DONEZTEBE

Herriko bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitarte.

ERRATZU

Herriko bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

ARESO

Sanpedroak

Ekainaren 29an eta 30ean.

OSPAKIZUNAK

URROZ

Urroz herrien eguna

Ekainaren 16an.

LEITZA

Larren Eguna

Ekainaren 16an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ESKUALDEA **San Juan bezpera**

Suaren bueltan hainbat ekitaldi izanen dira eskualdeko herrietan. *Ekainaren 23an, larunbatean.*

DONEZTEBE

Futbol Taldearen Eguna

Partidak, merienda, trikipoteoa, afari herrikoia... *Ekainaren 16an.*

IGANTZI

Biltoki Elkartearen besta

40. urteurrenaren harira. *Ekainaren 23an.*

LESAKA

San Juan bezpera

Musika, bertsoak, ezpata-dantzariak, zozketa, kantaldia... *Ekainaren 23an.*

ELIZONDO

Baztango IV. Gazte Eguna

Gazte olinpiadak, bazkaria, kalejira, kontzertuak... *Ekainaren 16an.*

Eskubaloi besta

Ekainaren 16an.

ARIZKUN

Garagardo Dastaketa

Gamioxarrean, ekainaren 29an, 20:00etan.

SARA

Eskolaren besta

Haurren ikuskizuna. *Erabilera Anitzetarako Aretoan, ekainaren 22an, 18:00etan.*

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Margo erakusketa

Eugenio Llamosasen eskutik. *Arizkunenean, ekainaren 1etik 24ra.*

LEHIAKETAK

LEITZA

Plazaola aldizkariko azal lehiaketa

Aurreran edo Maimurren aurkez daitezke lanak. *Ekainaren 22a bitarte.*

ETXALAR

Bestak iragarriko dituen kartel eta azal lehiaketa

Kultur Etxean, ekainaren 15a bitarte.

Nire aukera

«Atzerriko jendea ezagutzean piztu zitzaidan interesa»

UHAINA APEZETXE ERRATZUKO GAZTEA

«Egunaren, momentuaren, denboraren eta egoeraren arabera» bere burua «era batera edo bertera» definituko lukeen erratzuar gaztea da Uhaina Apezetxe. Ezaugarri egonkor bat badu, ordea: «gizartean gertatzen diren zapalkuntza egoerekin kezkatuta dagoen pertsona naizela beti erran ahalko nukeen». Bere kezka nagusiarekin loturiko ikasketak egin ditu: «Gizarte



UTZITAKO ARGAZKIA

Hezkuntza ikasten aritu naiz azken urteetan, Donostian». Areago, Baztango Udalak Gradu eta Master Bukaerako Lanak egiteko ematen duen laguntzari esker, «Baztanen emakume atzeritarrek bizi duten errealitatea» ikertzen ibili da. Gaia jorrazteko interesa «atzeritik etorritako jendea ezagutu nuenean piztu zitzaidan» adierazi du. Izan ere, jendea ezagutzean eta gertakariei izen-

«EMAKUME ETORKINEN ERREALITATEA HIRU PERSPEKTIBETATIK AZTERTU DUT»


abizenak jartzean «aski gogorra» den errealitateaz konturatzen hasi zen. Errealitate ezezaguna ezagutzeko nahiak eraginda «emakume etorkinen ahotsa entzuteari» ekin zion eta pixkan-pixkan «migrazio politiketarik hasita sozializazio prozesuetaraino bizi dituzten oztopoez jabetu nintzen». Ikuspuntu bat baino gehiago biltze aldera, hainbat elkarrizketa egin ditu «Baztanen bizi diren gazteei, emakume etorkinei eta gizarte zerbitzuetako hezitzaile zein gizarte langileari». Horrela, «errealitatea irudikatzea izan du helburu». Lanean «atzerriko emakumeek bizi duten zapalkuntza aztertu eta bizipenak bildu ditut, hori izan da interes nagusia». Udalaren laguntzak «lanak Baztanen kokatzea, eta horrekin Baztan gehiago ezagutzeko bide emateaz gainera, ikasle gazteondako laguntzatxo bat ere badirela» uste du Apezetxek. Otsailean aurkeztu zuen lana eta azken aldiaren lanean ari bada ere, «libre dudan denboraz gozatzen» saiatzen da. Bere ustez «konpainia onean edozein plan da ona». Noski, herriko bestak urtean behin direnez, «lehendabiziko eguneko Izpegiko igoerari» begira hasia da jada, «adin askotakoak biltzeak igoera berezi egiten du, giro ona izaten dugu».

ANIMALIAK**OPARITZEKO**

Hiru hilabeteko **txakurkumea** oparitzeko. Leongo mastina eta Collie arteko nahasketa. ☎ 617 254206.



Hiru **katakume** oparitzeko. Jaten hasiak dira; guraso ehiztariak (saguak, sataginak, satorrak...). ☎ 652 750817 / 948 615005

DENETARIK**SALEROSKETAK**

Balkoiko hiru ate osorik salgai, bi atekoak eta haritz egurrezkoak. 1,05 (zabalera) x 2,08 (altuera), markorik gabe. Climait kristal bikoitzeak. Prezio negoziagarria. ☎ 656 710411.

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

BERAKO UDA-LA**Oihan enkantea**

BERAko Udalak plegu itxiaren bidezko enkante publikoan salgai jarriko du Intzola eta Sagasti parajeetako oihan-aprobetxamendua.

Proposamenak iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitara eman eta ondoko 20 egun naturaletan, 13:30ak arte, aurkeztuko dira. Azken egun hau larunbatarekin suertatzen bada, astelehena arte luzatuko da epea. Baldintza pleguak Udal Idazkaritzan, 012 Zerbitzuan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai egongo dira.

Bera, 2018.05.25

Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

Traktore ertainendako **belar bola enzitadora** salgai. Egoera onean, gutti erabilia. ☎ 606 586603.

Errepideko bizikleta berria salgai, Alsania markakoa. 80 euro. ☎ 606 552350.

MOTORRAK**TAILERRAK**

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK
RENAULT
Estreinatu gabea
21.300€
KADJAR ZEN DCI 130 CV Nabigatzailea, apark. radarra kamararekin aurrean-atzean, 6 marba
Estreinatu gabea
17.500€
MEGANE ZEN DCI 110 CV Nabigatzailea, klimatiz., apark. radarra, 6 marba
Biak sustapen finantzieroei lotuak
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - domeztebe@red.renault.es

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
1000€
2500€
800€
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

KONTATU KONTUAK

Saria Madrilen. Kortariko Infernuko gasnak, gazta onduen kategorian, espainiar estatu mailako lehendabiziko saria irabazi zuen joan den hilabetean. 50 adituk baino gehiagok dastatu zituzten sailkatuak ziren gaztak eta lekaroztarrena izan zen onduen kategorian urrezko domina eskuratu zuena. Argazkian Kortariko Julen Arburua (ezkerrean) saria eskuan.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontagizua eta bidalgizua argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitze TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

KULTURKARIREN
ESKAINZA BEREZIA
KARTELAK
A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK
+
WHATSAPP EZ BIDALTZEKO
IRUDI DIGITALA OPARI
Info +: 948 63 54 58

URTEURRENA

Juan Miguel AGUIRRE IPARREA *Bibi*



Arizkunen, 2013ko ekainaren 15ean
V. urteurrena



Nahiz eta gure inguruan denak alaitzen zituen irribarre bat orain dela 5 urte itzali zen, egunero-egunero zeruan agertzen den izar dizdiratsu bat piztu zen. Urteak pasa arren, ez dugu zuk erakutsitako guztia erraz atzenduko.



Familia eta lagun guztien partetik, besarkada haundi bat.

URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
II. urteurrena

Hire irribarreak eta umore onak gure artean segitzen dik



HIRE KUADRILLA

URTEURRENA

Joxe Mari ERASUN ERASUN

Donezteben, 2017ko ekainaren 20an **I. urteurrena**

Jada urtea pasa da
Ta begietan ditugu malkoak
Gure artean utzi zenituen
Hutsune sendoak
Beti gure bihotzean egonen zara
Maitasunez zure familiakoak



URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
II. urteurrena

Bidelagun zintugun jator eta irribartsu orain hortxe zaude zu gure bihotzetan indartsu.



OSABA-IZEBAK ETA LEHENGUSUAK

URTEURRENA

Jesus Mari ARGAIN LARREGI

Narbarten, 2016ko ekainaren 6an
II. urteurrena

Gure gau ilunak argituko dituen izarra buruari bueltaka dabilen, irriaren oihartzunaren islada. Zu gure bihotzean beti altxatuko dugun Jesus Mari, aita eta ataxi maitea izanen zara.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
II. urteurrena

Beti izango zara nire zeruko izarrik distiratsuen. Askok maite zaitut.



JAIONE MINDEGIA

ESKELAK eta HILBERRIAK eguneratuak

erran.eus
webgunean



ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena Nafarroa garaiko mendialdean

HERIOTZAK

- **Jose Guillermo Ballester Arcues,**
Lesakakoa, maiatzaren 24an, 72 urte zituela.
- **Evangelina Etxabide Irigoien,**
Lesakakoa, maiatzaren 29an, 89 urte zituela.
- **Paskuala Lastiri Ibarra,**
Sunbillakoa, maiatzaren 29an, 94 urte zituela.
- **Manuela Altugarai Portu,**
Lesakakoa, ekainaren 2an, 87 urte zituela.
- **Jose Mazo Gomez,**
Leitzakoa, ekainaren 3an.
- **Antonio Oronoz Oronoz,**
Elizondokoa, ekainaren 3an, 86 urte zituela.



BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

HEMEN, ZURE ONDORAN
AQUÍ, A TU LADO

IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



MALERREKA:
DONEZTEBEN, Aparan industrialdean

BERAN, San Jose Beilatokian
Eta laster, **ELIZONDON**

Baita BERTIZARANA | ZUGARRAMURDI | URDAZUBIn ere
ESKUALDEAN ETXEKO ZERBITZUA

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com



Betika taldea zu laguntzeka

URTEBETETZEAK



Legasako **Ander Zelaieta Eulatek** 10 urte bete ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat lgantziko familiaren partetik.



Xabat Beorlegi Vicentek 2 urte beteko ditu ekainaren 21ean. Aunitz urtez gure pitxurrinori eta mila muxu potolo familia guziaren partetik.



Urdazubiko **Alizia Olaizolari** zorionak aunitz ekainaren 2ko partez. Arras ongi pasatu genuen. Besarkada handi bat Malerrekatik.



Maialen eta Aitor Baraibar Gortari oronoztarrek 14 eta 11 urte bete dituzte maiatzaren 27an eta ekainaren 8an. Muxu goxo-goxoak etxekoan partetik, bereziki ama eta attaren aldetik. Zorionak!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitetz Ttipi-Ttaparen bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekea.
- (4) erran.eus bitartez.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@tipi.eus helbidera idatzi beharko du.

EZKONTZAK


- **Romain Roche** eta **Melinda Sanchez**, Sarakoak, maiatzaren 19an Saran.
- **Florian Libier** eta **Elodie Meignant**, Sarakoak, maiatzaren 26an Saran.
- **Joseba Pikabea Baleztana** eta **Naiara Alberro Retegi**, Lesakakoak, maiatzaren 26an Lesakan.

PLAZAN BAZAN



OILATEGIAN



Hona hemen lau oilo. Batek arrautza zuria errun du. Bertze batek, gorritzta. Hirugarrenaren arrautza trabatuta gelditu da eta laugarrenari hautsi egin zaio hoditik ateratzean. Lotu oilo bakoitza bere arrautzari



BA DOK AMAIRU

Bilatu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

13



ITZALA

Zein da txita honen itzal zuzena?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ArcelorMittal

ArcelorMittal Lesaka, 60 urte altzairua eraldatzen

Ekainaren 26an, Ate Irekien Jardunaldia dugu.
Gu ezagutzera etorri nahi al duzu? Jar zaituz
harremanetan Lesakako Udalaren Kultura eta
Turismo Sailarekin, **948 638 007** zenbakira deituz
ekainaren 22a baino lehen.



<http://spain.arcelormittal.com>



@ArcelorMittalES



[youtube.com/ArcelorMittalEspana](https://www.youtube.com/ArcelorMittalEspana)

transforming tomorrow